

TOKIKOM

# karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

2011ko urriaren 28a. 305. zenbakia. 23. urtea

## *Bai, zein da?*

Gaur egun patrikan edo poltsan daramagu guztiok telefonoa; baina, garai batean, oso bestela ziren kontuak.

**05**

**Herriko kontuak**

Arraun Elkarteak

**08**

**Kirolak**

Orioko 3. herri lasterketa

**10**

**Aiako elkarrizketa**

Nikanor Lertxundi

**19**

**Adarretatik helduta**

Eli Huegun

**26 GURPIL**

Bazterre 2 - 0 - 20810 Oriu (Gijútekoa)

Tel: 943 635 866 www.26gurpil.com agirresarobe@hotmail.com

**agirresarobe**  
PROIEKTUAK, OBRAK ETA ERREFORMAK

- OBRA BERRIEN PROIEKTUAK
- ETXE ETA LOKALEN ERREFORMAK
- FATXADEN ERABERRITZEAK
- IGOGAILUEN PROIEKTUAK
- GREMIO KOORDINAKUNTZA
- INFORMEAK, OBRA LEGALIZAZIOAK, ...

ITURRIBIDE 5, 5. BULEGOA, ZARAUTZ  
SORJA AGIRRESAROBEC, ARKITEKTOA 635 731732

Carmen eta Txomin  
ARRANGELAK

943 83 05 37 / 943 83 27 47

**ARKAITZ**  
Taberna

Pinxoak,  
plater konbinatuak  
eta ogitarako mundialak

ABELABAYATEA, 1 Tel: 943 83 16 57



**Gabon**  
TABERNA

plater konbinatuak eta pinxoak

Tfnor: 943 83 06 09

**azkue**

Tf: 943 13 04 38

Allianz

Marigre Zaldua  
aseguru agentea

Euzko Ondo, 10 behe-oina  
Telefonoa: 943 13 47 80  
fax: 943 63 57 52  
e-maila: zaldua.dolores.pa@allianz.es

**RAMIRO**  
argazkiak

www.fotoramiro.com  
fotoramiro@fotoramiro.com

610 69 76 68  
943 83 10 48

Kinkladenda - Uma arropa

**argine**

www.lasnet.com/argine  
Tel: 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA  
UGARIEN TXARTELAREKIN

edariategia

**ANTILLA**  
jateleku

Norabait kalea 2 - TEL: 943 83 24 00

**azkue**  
karrozeria

Ubagun industrialdea, 7 20809 Aia-Oriu  
Tf/fax: 943 83 51 86 Carroceriasazkue@hotmail.com

**Automóviles**  
ZARAUTZ

ETIKETA ZERBITZU OROKORRA

OPORTUNITATEA  
HONEN BARRIAN  
9430

ZARAUTZ, TEL: 943 1313 50

**Dorronoro Denda**

196 letik zure ondoan

AUKERA HANDIAGOA  
FRUTATEGIAN

Tel 943 83 09 37

estilo berria

Ogitarakoak  
Plater konbinatuak  
Etzeko janaria  
Pinxoak

943 13 13 12  
Aitor

**GaleBask S.L.**  
Berrikuntzak  
Gremioen arteko koordinazioa

688 610 349  
Tel./Fax: 943 134 717  
galebask@hotmail.com

www.galebask.com  
Kale Nagusia, 2 -bajo  
20810 ORIO

Igo zaituz haize berrietara!

**Galeña I**

943890116-677119934  
galeña1orio@hotmail.com

# Beste behin ere argia piztuta egin duzu lo

# 305

## karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

**Kultur etxea**  
20810 Orio  
943 83 15 27  
karkara@karkara.com

**Editorea**  
Karkara taldea  
kultur elkarte

**Zuzendaria**  
Ana G. de Txabarri

**Erredakzio burua**  
Irati Agirreazaldeg

**Erredakzio taldea**  
Pat Cowie,  
Miren Etxeberria,  
Iker Gurrutxaga, Eli Lasa  
eta Jabier Zabaleta

**Publizitatea**  
Pat Cowie

**Publizitatearen diseinua**  
Lore Berasaluze  
eta Iker Gurrutxaga

**Testuen zuzenketa**  
Miren Etxeberria eta  
Jabier Zabaleta

**Ale honetako laguntzaileak**  
Jon Ander Azpiroz,  
Eli Huegun,  
Garbiñe Manterola  
eta losu Larrarte

**Laguntzaileak**  
Zigor Esoain  
eta Iñaki Iturain

**Diseinua**  
Danel Agirre Lertxundi

**Banatzaileak**  
Iban Recio  
eta Cristina Burlacu (Orio)  
Eli Irureta (Aia)

**Inprimategia**  
Gertu Koop. E. (Ofiati)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.

### 1

Larogei urte gainean,  
hezur ta axial sudurra.  
Bueltan-bueltan hola doa  
bai, nere biziko tourra.  
Argiak gaur eskaintzen dit  
lasaitasun bat, apurra,  
kezka izaten delako  
nere loaren lapurra.  
Baratzean sarri asko  
astindu izan dut atxurra.  
Gizon gogorra izan naiz,  
beti aurrera muturra,  
baina orain nere egoera  
ez ta batera xamurra.  
Bizitzeko indarrrik ez ta  
heriotzari beldurra.

### 2

Gogoan daukat, Maria,  
zu joan zinen eguna.  
Malkoak isuri ditut,  
orain dena da lurruna.  
Lehen horren gertu zintudan  
ta orain horren urruna.  
Bizitza polita izan da  
biok, bai, egin genduna.  
Gaur argia piztu nahi dut  
hauxe da lasaitasuna.  
Zurekin lorea zena  
gaur bihurtu zait asuna,  
honek argitu nahi baitu  
lehengo zure maitasuna,  
baina ez zera nere kuarton  
sekula sartzen kuttuna.

### 3

Erlojua bueltan doa  
ta zapaldu du hamabia.  
Ni naiz oroitzapen hoi  
pusketa bat, haragia.  
Gogoan dadukat lehengo  
garai oparo, emaria.  
Ta orain josten nihoa  
zuk utzitako haria.  
Eguzkia falta zait ta  
koartoa dut ilargia,  
belarrian entzuten dut  
oraintxe zure hitz erdia.  
Argia piztuta daukat  
bai, horixe da egia.  
Hiltzen naizen egunean  
itzaliko dut argia.



KARKARA

## PUBLIZITATE PREZIOAK

### Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

### Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

**Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo [publizitatea@karkara.com](mailto:publizitatea@karkara.com) Prezio hauei BEZa gehituko zaie**

## LAGUNTZAILEAK



## EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sailak diruz lagundutako hedabidea

## Laguntza ukatu? Zehaztu dezagun

Txuleta festa ez antolatzea erabaki du Toki Alai elkarteak eta arrazoia laguntza falta omen da. Errua, Orioko Udalarena. Beren esanetan, ezezkoa eman diegu eta horregatik ez dute festa antolatuko. Halakoetan komeni izaten da azalpenetan zehatzak izatea, gaiak erdizka eta gutxi-gorabehera kontatu beharrean.

Eskaria urriaren bateko datarekin sartu zuen Toki Alai elkarteak. Bost egun geroago, urriaren 6an, egin zen batzordea, erabakia hartzeko, eta bertan puntuz puntu aztertu ziren Toki Alai elkartearen hamalau eskariak. Hamalau eskari ziren. Ikus dezagun puntuz puntu zeri esan zaion baietz eta zeri ezetz.

Festa plazan egiteko baimena ematea eta festa burutzen den bitartean plazako ibilgailuen trafikoa mugatzea, plaza ingurua oinezkoentzat soilik irekiaz eta herri sarrera moilatik jarritz. Baiezkoa.

Festaren baitan sortzen den material guztia gorde ahal izateko, elizara doan igogailuaren eraikineko biltegia erabiltzeko aukera. Baiezkoa. Udaletxeko komunak erabiltzeko aukera, baiezkoa. Toldo bidez plazako itxutura udaleko langileek prestatzea eta festak, plazan, aurreko urteetako itxura eta forma izan dezan behar diren elementuak kentzea, aulkiak eta trafiko seinaleak, nagusiki. Baiezkoa. Mahaiak, tableroak eta astoak. Baiezkoa. Izotz bila joateko brigadak duen gruadun furgoneta erabiltzeko aukera. Baiezkoa. Degustazioetarako plater eta edalontzi berrereabilgarriak.

Baiezkoa. Azpiegiturari egokituko zaion ur eta elektrizitatea ezartzea. Baiezkoa. Urkome erakundeari hamar karpa eskatzea. Baiezkoa. Tolosako Udalari, txuletak erretzeko parrilak eta karpa handia eskatzea. Baiezkoa. Hori guztia udal langileek egin zezatela erabaki zen batzordean, Bildu eta Orainen botoekin, gainontzeko festetan bezala, herriko taldeek antolatutako ekimenetan Udalak laguntzaile behar duelako.

Zeri esan zaion ezetz? Bat: *Orio Estilora* izena ez erabiltzeko eskatu zitzaion Toki Alai elkarteari, sorreratik *Orio Estilora* marka Orioko Udalarena delako eta gaur egun ere hala delako. Eta uztaileko kultura batzordean erabaki zen nola erabili: *Orio Estilora* bisiguak erretzen dira eta marka bisiguaren festan bakarrik erabiltzea adostu zen. Txuleta egiteko estilo berezia al daukagu Orion? Edo parkeetan kanasta bat jartzen dugun baikoitzean *Orio Estilora* jarri behar al da? Ezetz erabaki zen, zinegotzien gehien-go markaren erabilera mugatzearen alde dagoelako. Bi: 4.000 euroko diru-

## Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARAra bidal daitezke posta elektronikoz honako helbidera: [karkara@karkara.com](mailto:karkara@karkara.com) edo gure lokalera eskura ekarri -Kultur Etxean- edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizena-rekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio. KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

laguntza eskatzen zuen Toki Alai elkarteak festaren propaganda egiteko. Gehiegikeria iruditzen zaigu elkarte bati festa baten promoziorako diru-laguntza hori ematea. Herriko festen promozioan, edo beste elkarteek antolatzen dituzten festetan propaganda egiteko Udaleko kartelak eta bitartekoak erabiltzen direlako. Denekin berdin jokatzeko hartu dugu erabakia.

Hori guztia hitz egin zen batzordean. Lagundu diegun edo ez norberak erabaki dezala. Beste taldeei laguntzen zaien bezainbeste lagunduko zaio Toki Alairi, ez gehiago eta ez gutxiago. ■ **Orioko Bildu.**

## Bertso eskola

Errikotxia bertso taldeak, urtero bezala, bertso eskola martxan jarriko duela adierazi nahi dizue. Bertsozaleak animatu nahi ditugu bat-bateko bertsoaren magian murgiltzera. Horretarako, aste-oro elkartuko gara ordu eta erdiz elkartearen egoitzan, Iturbide kaleko lokalean. Ostegunero izango da zita, iluntzeko 20:00etan hasita 21:30ak arte, azaroaren 3tik aurrera.

Hortxe duzue aukera! Animatu! ■ **Errikotxia bertsozale taldea.**

## Mila esker Goiko Kaletik!

Auzoko jaiak pasa berriak dira, eta datorren urtekoen zain geratu baino lehen, Goiko Kaleko festa batzordea eskerrak eman beharrean dago. Eskerrak lokala lagatzen digun sendiari; eskerrak lokala txukuntzen aritu diren auzotar guztiei; eskerrak bingorako tartak, atun poteak eta bestelakoak eman dizkigutenei; es-

kerrak boletotarako gitarra eta barazkiak ematen dizkigutenei, eskerrak Zaharren Babeslekukoei bingo elektronikoa lagatzeagatik; eskerrak Parrokiakoei zimitorioa guretzako propio ireki eta laguntzeagatik; eskerrak esatari, txistulari, buruhandi, bakarlari, txotxongilo eta artista guztiei; eskerrak Aldapa elkartekoei muserako eta bazkarirako lekua uzteagatik; eskerrak azokan parte hartu duten herritar guztiei; eskerrak Galtzarri elkartekoei auto gaineko bozgorailuagatik; eskerrak trasteak uzteko taberna ondoko lokalak uzten dizkigutenei; eskerrak igandeko sukaldari eta boletoto saltzaileei; eskerrak patata tortillak egiten dituztenei, eskerrak argazki zaharrak utzi eta prestatu zituenari... eta eskerrak baita ere, Beheko Kaletik gorako saltoa eman zuten herritar guztiei, hainbeste kostatzen den koska hori urtean behin behintzat igotzen duzuelako. Eskerrik asko!

Azken batean, Goiko Kaleko festak ez lirakeke ezer izango zuek gabe. Goiko Kale ezer bada horixe baita, familia handi bat! ■ **Goiko Kaleko festa batzordea.**



## Edukiontzia irekita arrisku abisurik gabe

Urriaren 19an, eguerdian, Aiako Lardizabal eskolatik 100 metrora dagoen zabor organikoa botatzeko edukiontzia gisa honetara aurkitu zuen handik pasa zen herritar batek. Irekita egoteaz baina, arriskua ohartarazten zuen abisurik ez zegoela eta zuloaren ingurua zintaz babestu gabe zegoela salatu nahi izan du argazkia bidali digun aiar honek.

# Ibon Huegun da Orio Arraunketa Elkarteko presidente berria

Ostegunean hartu zuen datozen lau urteetarako kargua eta zuzendaritza batzorde berrian beste 18 bazkide izango ditu lagun, tartean orain arteko zuzendaritzako hainbat kide.

Ezohiko batzarrean, gaur egungo zuzendaritzak karguak bazkideen esku utzi eta aldaketa bozkatu zuten Orio Arraunketa Elkarteko kideek. Zuzendaritza berria aukeratzeko hauteskundeetara zerrenda bakarra aurkeztu da –KARKARAK zenbaki hau ixterako orduan zerrenda bakarra zen– eta, beraz, urriaren 27an hartu zituzten datozen lau urteetarako karguak zuzendaritza batzorde berriko kideek. Guztira 19 laguneko zerrenda osatu dute eta tartean badira aurreko zuzendaritza batzordeko hainbat kide ere.

Zerrenda bakarra aurkeztu dela eta ez diote kontu horri buelta gehiago eman nahi zuzendaritza berrikoek. *Egoera honetara iritsi bagara seguru asko denon errua izan da, denok dugu horren ardura, baina orain ez da momentua hau egin izan bagenu, beste hura esan bagenu... pentsatzeko. Aurrera egin behar dugu ahalik eta umilen eta apalen, baina betiere gogor lan eginez*, dio Ibon Huegun presidente berriak.

Lan taldean hainbat aldaketa egin dituzte eta besteak beste entrenatzaile berriak izango dira. Igor Makazagak hartuko du lehen trainerua eta Mikel Portularrume *Paorra* izango du laguntzaile; aulki mugikorreko entrenatzailea, berriz, Miguel Angel Millares izango da. Orain arteko entrenatzaile eta prestatzaileen harira Ibon Huegunek zera azaldu du: *Jose Luis Agirre bigarren tripulazioan egongo da. Prestakuntza fisikorako Igor Makazagak plan propioa du prest eta Iñigo Mujika beheko mailetan laguntzaile izango du.*

Aldaketa horiekin *betiko Orio izatera bueltatu* nahi dute. *Lehenengo taldea mailaz igotzea* –KAE letik TKEra– izango litzateke gure helburu nagusia, *galdu-tako maila berreskuratzea, eta horretarako aukera ikusten dut. Aulki mugikorrean ere lan txukuna egitea gustatuko litzateke. Kategoria eta estropada guztietan eta ontzi guztiek ahalik eta maila onena lortzea nahi dugu*, dio Huegunek.

## Bigarren zerrenda atzera

Herrian bolo-bolo zebilen arraun elkarteko hauteskundeetara bigarren zerrenda bat aurkeztuko zen kontua, baina epea bukatu bezperan atzera egin zuten.



Ibon Huegun, eserita, zuzendaritza batzorde berriko hainbat kideekin. KARKARA

Migel Angel Sarasua buru zuen taldeak zuzendaritza batzordean jarduteko *inolako interes politiko, ekonomiko edo bestelakorik* ez duela jakinarazi zuen.

## Betiko Orio izatera bueltatzea eta lehenengo taldeak maila berreskuratzea dira batzorde berriaren asmo nagusiak

Komunikabideetara helarazitako gutun baten arabera, *interes bakarra Orioko arraun elkartea dagokion lekura itzultzea da. Ikusi da, aurreko zuzendaritza batzordeko kideek, deitutako konfiantza-mozioa gainditu ez eta dimittitu egin zutela esan arren, hor jarraitzeko gogoia dutela eta hori lortzeko hautagaitza aurkeztu dutela. Guk gauza bera egingo bagenu, hauteskundeak izango genituzke elkartean herrian orain dagoen zatiketa areagotuz. Eta guk ez dugu horrelakorik nahi.*

Hautagaitza horren asmoa zen harrobiarekin, aulki mugikorrean eta traine ruarekin erreferente izatea eta elkartea oriotarrentzat irekia eta gardena izatea.

## Laguntzeko prest

Agustin Zalduak ere hauteskundeetara aurkezteko zuen asmoa aurreratu zuen arren, honek ere azken unean ez du zerrendarik aurkeztu. Hala ere, jakinarazi du zuzendaritza berriari laguntzeko prest dagoela *bere egitasmoarekin* bat datorrelako. *Ez da komeni bakoitza bere bidetik joatea, elkar lagunduz gero dena hobeto joango dela uste dut*, dio Zalduak.

## ZUZENDARITZA BATZORDE BERRIA

**Presidentea:** Ibon Huegun Bengoetxea  
**1. Presidente orde:** Joxe Luis Loidi Aranbarri

**2. Presidente orde:** Joxe Ramon Garate Aldaz

**Idazkaria:** Ramon Alkain Ezeiza

**Bokalak:** Joxe Manuel Agirresarobe, Jexux Mari Aierza, Leire Alustiza, Iñaki Arostegi, Iñigo Arruti, Joxe Carrera, Lino Mari Carrera, Aitor Errasti, Iñigo Garmendia, Zigor Gazpio, Patxi Iribar, Angel Martinez de la Hidalga, Oihane Mateos, Joxe Inazio Mujika eta Angel Rekalde.



Salatxo eta elizaren artean plaza txiki bat egiten ari dira. KARKARA

# Eliza inguruko lanak urte bukaerarako amaituko dituzte

Bigarren fasearekin bukatuko dituzte elizaren inguruko lanak. Salatxo, zimitoria eta eliza azpiko plaza izan dira txukundu dituzten tokiak eta, 6 urte eta 887.458,25 euro behar izan dira.

Eliza ingurua txukuntzen hasi zirela 5 urte pasa diren arren, lehen lanak 2005an hasi ziren. Gestur S.L. enpresari adjudikatu zitzaion proiektua idazteko kontratua urte hartako abuztuaren 2an. Hilabete batzuk beranduago, 2006ko martxoaren 21ean, elizaren ondoko erakina botatzeko lana adjudikatu zitzaion *Guipuzcoana de restauraciones S.A.* enpresari, eta 93.565,83 euro kostatu zen.

Urtebete beranduago, martxoaren 7ko udalbatzarrean, enpresa berari adjudikatu zitzaion *Orioko Bariko San Nikolas Elizaren ingurunea urbanizatze*ko 1. fasea obren exekuzio kontratua. Adjudikazioaren prezioa 474.800,15 eurokoa izan zen eta lan horiek egin eta gero, gaur egun elizaren plaza aldeko zimitoria eta haren inguruak duen itxura hartu

zuen. Horrez gain, elizara igotzeko aldapana, atsedeneku txiki bat ere egin zen.

## Bigarren fasea

Bigarren fasearen adjudikazioa, 2011ko otsailaren 8an erabaki zen. Horretarako, *Manuel Echaide S.L.* enpresari adjudikatu zitzaion obren exekuzio kontratua, 319.092,27 euroko prezioan.

Lan hauek urtea bukatzerako amaituko dituztela jakinarazi du Orioko Udaleko bulego teknikoak, eta egin dituzten aldaketan artean, Salatxo berritzea eta ondoan, elizaren azpian, plaza txiki bat egitea daude.

Bukatzeke, elizaren barruko lanak ere aurrera doaz eta San Nikolas egunerako mezak berriz ere bertan izango direla aurreratatu digu Unai Manterola apaizak.

## LABUR

### Bertsolaritza

#### Gurrutxaga azkena Oñatin

Urriaren 22an jokatu zen Oñatin Gipuzkoako bertsolari txapelketako lehen final laurdena. Zubikoa kiroldegian zuen hitzordua Iñaki Gurrutxagak eta 650 entzuleen aurrean ez zuen bere mailarik onena erakutsi. Bertsoak ekarri ezinik ibili zen eta, ondorioz, saioko sailkapenean azken lekuan bukatu zuen 451 punturekin. Txapelketako hurrengo final laurdenetan zer gertatzen den zain egon beharko duen arren, zail izango du Gurrutxagak aurrera egiteko.

### Kantu txapelketa

#### Huegun, Unanue eta Lizaso Donostiako finalean

Gipuzkoako 15. kantu lehiaketako kanporaketak bukatuta, Orioko eta Aiako hiru ordezkari izango dira finalean. Heranin bakarlarri gisa arituta eskuratu zuen Eli Huegun aiarrak, *Betazalak eraztean* abestiarekin, finalerako txartela. Orioko Intza Unanue eta Olatz Lizasok *Zuk gora naramazu* kantatu zuten Bergaran eta horiek ere sailkatu dira. Finala azaroaren 27an, Donostiako Antzoki Zaharrean izango da.

### Enplegua

#### Zentro berria Zarautzen

Urola Kostako Udal Elkarteak Enplegu zentroa jarri du martxan. Lana bilatzen laguntzeko tresnak eta orientatzailea daude bertan eta Zarautzen, Abendaño industrialdean dago. Asteleheneetik ostiralera, 08:00etatik 14:00etara, bulegorako sarrera izango dute bailarako langabetuek zein lanean ari direnek.



Aurreko auzolanetan bezala, oraingoan ere gazte ugari bildu dira Etxeluzen. LAIDA ITURRALDE

## Auzolanean ari dira gazteak Etxeluze txukuntzen

Urriari hiru egun erabiliko dituzte, teiltuarena konpondu eta barruko espazioaren banaketa lanetan. Urriaren 12a izan zen lehen eguna, bigarrena 25ean izango da eta 29an azken saioa.



Lehen egin zuten barra kendu eta berria jarriko dute. LAIDA ITURRALDE

Gustura daude gaztetxeko asanbleakoak urriari egiten ari diren auzolan jardunaldiekin. Lehenengoa urriaren 12an egin zuten, goizeko 10:00etan hasita eta 15 inguru lagun bildu ziren gaztetxean egiteko zeuden hainbat lanetarako.

Egin zituzten lanen artean garrantzitsuena, teiltuaren arazoari konponbidea ematen saiatzea izan zen. *Aldamio gainera igota nahikoa lan izan genuen, arriskutsua baita. Gainera, hautsa eta zikin-keria ugari dago bertan pilatuta eta gainera etortzen zitzaigun dena* esan digute gaztetxekoek. Itokinak ditu gaztetxeko teiltuak, eta neguko euriei aurre egiteko toldo pare bat jarri dituzte zulo handienak estaltzeko.

Eszenatokiarekin atze aldean batukadaren instrumentu eta bestelako materialak gordetzeko txoko bat egin zuten eta, horrez gain, gela moduko bat egiteko, eskilara batzuk ere egin zituzten, bigarren solairu bat sortzeko asmoarekin.

Urriaren 12ko auzolanean bertan bazkaldu eta arratsaldeko 18:00ak arte jarraitu zuten gazteek. Bigarren zita, urriaren 25ean jarri zuten. *Jende askok jai eguna duela aprobeztatuz, urriaren 29an egiteko asmoa dugun lanetarako guztia prest uzteko nahiarekin bildu ginen dozena bat pertsona.*

### Gaztetxeko asmoak

Dituzten asmoen artean daude gaztetxearen eszenatokiko atzeko aldean bilera gela bat sortzea, eta sukalde bat eta taile-rrak egiteko tokia antolatzea. Horrez gain, barra berria egiteko asmoa ere badute gaztetxean. *Urriaren 25ean orain arte zegoen barra kendu genuen, larunbatean, hilaren 29an, barra berria ekarri eta jarri beharko baitugu Etxeluzen.*

*Gainera, kontuan hartu behar da hori guztia aurrera eramanez ahal izateko, argindarra sortzeko dugun motorra erabili behar izan dugula, horrek sortzen dituen gastuak ere gaztetxeko bere gain hartuta. Lana egunez egitekotan, gaztetxean argindarra izateko modu bakarra oraindik hori da, korrante elektrikoa ez baitigute jarri, gaineratu dute auzolanean jardun zuten gazteek.*

Hilabete hau gaztetxea txukuntzeko lanetan pasako dute gazteek, bestelako ekitaldirik antolatu gabe. Baina behin gaztetxea txukunduta, negurako programazioa lantzen jarraituko dute eta, besteak beste, kontzertuak eta ikastaroak antolatzeko asmoa dute.

Dena dela, lanak dira lehenengo egin beharra eta, horretarako, urriaren 29an, goizeko 10:00etan lanera laguntzeko deia egiten diete gaztetxekoek, Etxeluze txukuntzeko lanetan esku bat bota nahi duten herritar guztiei.

# Blanco eta Ziani garaile Orioko 3. Herri Lasterketan

Parte-hartzea handia izan zen urriaren 23an egindako lasterketan. 300 inguru korrikalari izan ziren irteeran eta 278k bukatu zuten Orioko Herri Ikastolak berriz ere martxan jarri duen proban.



Kaanache 2 zenbakiarekin 2. izan zen ibilbide luzean; Ziani 1 zenbakiarekin garaile laburrean. KARKARA

Hiru urte pasa dira eta Orioko Herri Lasterketa berriz agertu da egutegian. Aurtan, gainera, bi ibilbide jarri dituzte, 7 kilometroko lasterketa laburra eta 14 kilometroko luzea. Parte-hartze datuak onak izan dira eta tartean 46 herritarrek ere egin zuten korrika.

Kros laburrean, Kamel Ziani izan zen helmugan denborarik onena egin zuena, 22 minutu eta 52 segundorekin, bigarren izan zen Xabier Satrustegi errazkintarrari minutu eta 42 segundo aterata. Distantzia laburreko emakume onena Olatz Gabilondo azkoitiarra izan zen 30 minutu eta 16 segundoko denborarekin, eta emakumeetan oriotarrik azkarrena Marijose Manterola 37 minutu eta 18 segundoko denborarekin.

Ibilbide luzean Jose Antonio Blanco ordiziarra izan zen azkarrena 14 kilometro egiten: 46 minutu eta 10 segundo behar izan zituen korrikalariak. Bigarren Hossain Kaanache oriotarra izan zen eta Blancok baino minutu eta 49 segundo gehiago behar izan zituen. Distantzia berean, emakumerik onena Aitziber Ibarbia zizurkildarra izan zen 58 minutu eta 11 segundoko denborarekin, bigarren Uxue Fernandez zumarragarra izan zen Ibarbiarengandik 3 minutu eta 38 segundora, eta oriotar onena Maite Urrutia izan zen ordu 1,5 minutu eta 52 segundotan.

## Behobiarako autobusa

Juan Angel Garmendia *Xarpasek* Behobia-Donostia probarako autobusa antolatatu du berriz. Izen-ematea martxan da eta aurretik ordaintzen dutenek izango dute lehentasuna autobusean.

## LABUR

### Pala

#### Indo eta Beldarrain irabazle

Gipuzkoako 2. mailako emakumeen gomazko paleta txapelketan, Arrate Indo eta Naroa Beldarrain oriotarrek txapela jantzi zuten urriaren 23an Zarauzko Aritz-batalde frontoian. Finalera partidarik galdu gabe iritsi ziren eta Bañales eta Lendinezen aurkako partida 14-15 galtzen hasi baziren ere, 30-18 irabazten bukatu zuten oriotarrek, joko aparta erakutsita.

### Giza-proba

#### Orio, Gipuzkoako txapeldun

Urriaren 16an, Zizurkilen jokatuak Gipuzkoako giza-proba txapelketan, Orioko Heldu! herri kirol taldea izan zen irabazle. Oriotarrek 87 plaza egin zituzten 30 minutuan -15 minutuko bi txandatan banatuta, tartean 10 minutuko atsedenearekin-, bigarren izan zen Aiztondo-Oarso taldeak baino bi plaza gehiago. 700 kiloko harri tiraka 660 kiloz azpiko 8 laguneko taldea osatu behar zen, eta Pello Saizarrek 657 kilo pisatzen zuen taldea bildu zuen. Gauzak horrela, bigarren urtez jarraian oriotarrentzat izan da txapela.

### Zaldiak

#### Iparragirrek irabazi zuen Raida

Orioko Kukuarriko Raid zaldi lasterketa, Gaizka Iparragirrek irabazi zuen *Hook* zaldiarekin. 3 ordu 45 minutu eta 38 segundo behar izan zituen Iparragirrek ibilbideko 40 kilometroak betetzeko. Bigarren, ia 8 minutura, Fatima Larrañaga izan zen *Furia de quijas* zaldiarekin. Lander Zabalza eta *Salam* izan ziren onenak lehen itzulian, baina kaleratuak izan ziren. Guztira 23 zaldi eta zaldunek hartu zuten parte lasterketan eta 20k bukatu zuten proba. Distantzia erdian, 3k hartu zuten parte eta Ane Saezek irabazi zuen.





JOSEBA MANTEROLA

# “Txikitako ametsa zen Realean jokatzera eta ezin nuen sinetsi”

## Ainara Manterola

Futbolaria

Orioko taldetik Realera joan eta lagun, parranden... falta sumatu arren, noizean behin Mendibeltzera bisita egiten die lehengo taldekideei. Realean egunero entrenatuz, ahalik eta gehien hobetzea eta futboleko goren mailara iristea da bere ametsa.

### IRATI AGIRREAZALDEGI

Beti atzean jokatu izan duen arren, mailaz maila aurrerako pausoak eman ditu Ainarak. Txiki-txikitatik ibili izan da futboleko, errekreoetan beti mutilekin, beranduago, plaierotan ere mutilekin eta, ondoren, nesken taldea aurreneko atarazenean ba hantxe, aita entrenatzaile zutela. B, zelaian 12 urterekin hasi zen.

#### Realerako pausoa noiz eman zenuen?

Orain dela bi urte hasi nintzen. Realak nire adineko hainbat neska elkartu eta asteazken behin teknifikazio entrenamenduak egiten zituen, eta hara joateko dei-

tu zidaten; iaz, asteazkenero, Superligako taldearekin entrenatzen hasi ginen Orioko taldeko Malen Moran eta biok. Baina jokatu, Orioko taldearekin jokatzen genuen. Denboraldia bukatu zen eta ez nuen espero deituko zidatenik.

#### Eta deitu zizutenean?

Orioko taldean ari nintzela Espainiako selekzioetik deitu zidaten eta, Madrilerara joan behar nuenean, min hartu eta etxean gelditu nintzen lur jota. Hala nengoe-la, Realeko koordinatzaileak deitu zidan eskaintza egiteko eta sekulako poza izan zen. Txikitako nire ametsa zen eta bete zenik ezin nuen sinistu.

### Realean ari zara, baina jaso duzu beste talderen batetik eskaintzarik?

Bai, Realak deitu aurretik Nazional I mailako –gizonezkoen bigarren maila– bi taldetatik deitu zidaten, Oiartzundik eta Añorgatik, baina gero Realaren eskaintza jaso eta ez nuen zalantzarik izan.

### “Orioko partidekin alderatuta gu ikustera jende asko etortzen da, baina Realeko mutilen partidekin ez dago konparatzerik”

“Ez diot politikari erreparatzen. Ahalik eta maila gorenean jokatu nahi dut, eta Espainiako selekzioak eskaintak aukera aprobetxatu egin dut”

### Superligan noiz hasi zinen?

Uda hasieran fitxatu ninduten eta ligan zazpi partida jokatu ditu taldeak eta nik horietatik bost. Lehen partidari, Valentzian, espero gabe titular izan nintzen, partida osoa jokatu nuen eta gainera irabazi egin genuen. Bi partida ez ditut jokatu, baina gainontzekoak bai. Taldeko gazteena naiz eta hasieran zelaira aterata oso urduri jartzen nintzen, baina pixkanaka ikasi dut baretzen eta gero eta gusturago ari naiz.

### Zuen partidetara joaten al da jenderik?

Orioko partidekin alderatuta bai, baina Realeko mutilen partidekin ez dago konparatzerik. Badaude nesken futbola jarraitzen dutenak eta derbietan, adibidez, giro polita egoten da. Emakumezkoen futbolariek ez du oihartzun handirik eta horretarako hedabideetan leku gehiago egin beharko ligukete.

Hala ere, emakumezkoen Real sortu zenetik hona gauzak aldatzen ari direla diote taldeko nagusienek; baliabide eta azpiegiturak ez ezik, prestatzeko modua ere asko hobetu dela.

### Espainiako selekzioarekin ere aritu izan zara.

Orion ari nintzela 16 urtez azpikoetarako dei egin zidaten. Hiru egun Madrilen pasatzen genituen goiz eta arratsaldean entrenatzen. Aurten 17 urtez azpiko taldearekin entrenamenduetan ez ezik, Azerbaijanen ere izan naiz Europako txapelketan. Emakumeen futbolaren giroa bertatik bertara ikustea eta urrutiko taldeen aurka –Ukraina, Bosnia...– jokatzea benetan gozatzekoa da. Espainiako selekzioarekin jokatzearen harira esan dizkidate hainbat gauza, baina nik ez diot politikari erreparatzen, ahalik eta maila gorenean jokatu nahi dut, onenen aurka eta Espainiako selekzioak aukera eskaini didanez, aprobetxatu egin dut.



KARKARA

## “Bilduk erakarri ninduen jende desberdinen arteko koalizioa zelako”

**Nikanor Lertxundi Ibarguren**

Getariako alkatea

Aian ezaguna da Nikanor, nahiz eta 1994tik aurrera Getarian bizi, hangoa den emaztearekin eta bi seme-alabekin. Espero ez zuenean, alkatetzan sartzea egokitu zitzaion, ekainean, eta han elkartu gara bizi duenaz hitz egiteko.

**PATCOWIE**

**Zein bidezidor hartu duzu Getariako Udalera iristeko?**

Hasieran, fabrika txiki batean egin nuen lan, baina segituan konturatu nintzen ez nintzela toki itxitakoa: ito egiten nintzen, kanpoan behar nuen lana, eta iturgintzan hasi nintzen. 1993an hasi nintzen Aiako brigadan eta lan egokia zen nire izaerarako. Alkate bihurtu nintzenean uste nuen zailago egingo zitzaidala,

baina, ez, jende askorekin egoten naiz, egunero diferentea da, batzuetan barruan, besteetan kanpoan.

**Zerk bultzatu zintuen Bilduren zerrendaburu izatera?**

Nahiz eta sekulan politikan ez ibili, gaia beti gustatu zait, telebistako debateak, egoeraz hitz egitea... baina ez naiz identifikatuta sentitu inongo alderdirekin. Bilduk erakarri ninduen jende desberdinen artean osatutako alderdi abertzale eta eskertierra delako, eta ate joka etorri

zitzaizkidan. Hasieran, ezetz esan nien, baina Bilduri gauza on asko ikusten nizkion eta, hautagaiak ikusita, konturatu nintzen herriko hainbat kultur ekintzetan, guraso elkartean, Txeru kultur taldean, hainbat soziedadetako batzordeetan... parte hartu dugunok egongo gine-la besteak beste. Ez naiz jantzia ikasketetan, baina esan zidaten: Hik badaukak jendearekiko dohaia, eta beste hautagaiekin talde eder bat egingo daigu. Gainera, jende ezberdin askoren laguntza eskaini zidaten, bai orain dela 30 bat urte Getariako Abertzaleen Batasuna (GAB) taldea sortu zutenen aldetik eta baita ondoren hainbat urtetan Udalaren inguruan lanean jardun den beste jende baliotsu batzuen aldetik ere. Babes hori izan zen benetan animatu ninduen.

**Hala ere, hamaika gorabeheratik pasa zineten Udalera iristeko.**

Marka da! Behin politikan sartzeko animatzen zara eta bigarren egunerako ilegala! Ezer egin baino lehenago baztertua! Bildu aurkezteko baimena eman zenean, poz handia sentitu genuen, baina sentsazio gazi-gozoarekin. Bildukoak ez zirenek ere zorionak eman zizkiguten. Gero, hauteskunde egunean 100 boto gehiago lortu genituen 28 urtean agintean izan den EAJk baino. Zirrara batekin oroitzen naiz amona batzuek esandakoa: *Eskerrik asko eta zorionak! Uste genuen ez genuela sekulan egun hau ezagutuko!* Orain tokatzen zaigu jende horri,

eta guztiei, erakustea badagoela lan egitea era desberdinean. Gogotsu gaude.

## Zer lortu da aurreneko asteotan?

Batetik, sartu bezain pronto lehen zeuden gauza batzuei bukaera eman behar zitzaion. Bestalde, udan jende asko etortzen da Getariara eta, ondorioz, arazoak sortzen dira beti, festak ere antolatu gabe zeuden... Denei presaka erantzun behar izan genien, baina ohituta nago arazoei irtenbideak bilatzen.

Orain, benetako udal funtzionamenduan hastea eta ikastea epe luzeko erronka da; esperientziarik ez daukat eta ez dut jakinduriarik gauza haue-tan, baina aurrera egin behar da. Horrek ematen zidan kezkarik handiena. Hala ere, nahiko pertsona lasaia naiz eta ta-maina hartuko diot.

## Bilduren estiloa nabarmentzen al da egiten ari diren gauzetan?

Bilduren ikuspegia da gauzak kaleratu eta eztabaidatu behar direla. Herritarrek lekua izango dute mahai batzuetan erabakiak bideratzeko —errazago esaten da egin baino!— eta ez nuke nahiko Bilduren mahaiak izatea, Udalean parte hartzeko mahaiak baizik. Zenbat eta mahai zabalago eta kolore desberdinekoak izan, askoz ere aberatsagoak izan-goto dira.

## Momentu zaila egokitu zaizue.

Bai, zoritxarrez, garai onak ez dira, ez Udalean, ez etxe askotan, ez enpresatan. Eta gauza asko Udaletik pasatzen dira: gurdia edo barkua izugarri handia da, mantso doa, baina gelditu gabe gai asko kargatzen zaizkizu, arazoak... polita da, baina bere kezkek baditu. Egia da aholkuak eta esplikazioak ematen dizkizuten teknika-iriz inguratuta zaudela, eta horien iritsi teknikoarekin uztartzen dugu gure ikuspegi politikoa. Finean, hizkuntza berri bat ikasten ari naiz, udal hizkuntza!

## Eta zer ikasi duzu?

Ez zara hasten orri txuri batekin: aurrekoek egindakoa duzu esku artean eta diru kontuak ez dira zerotik hasten, baizik eta zorrekin. Batzuetan tokatzen zaizu atzera begiratzea, lehengo erabakiek oraingoan eragiten dutelako, baina ez naiz ni atzera begiratzekoa. Ilusioa dago, ez proiektu handietan sartzeko, baizik eta gauza txikiak egiteko, baina erabaki gogor batzuk ere hartu behar izan ditugu. Garrantzi handia ematen diot herritarrek gardentasun osoz informazioa jasotzeari, adibidez, hartutako erabaki baten zergatia azaltzerakoan. Batzuek ondo ulertuko dute, beste batzuek ez, baina zentzuzko erabakiak lasai hartu behar ditugu. Balentria behar da eta

konbentzimendua ondo egiten ari zarela.

## “Marka da! Behin politikan sartzeko animatzen zara eta bigarren egunerako ilegala! Ezer egin baino lehenago baztertuta!”

“Umil ez bazara sentitzen, ez dago zereginik; lanbide bezala baino bizipena da, ikasteko eta harremanak lantzeko tokia”

## Lau urteko karrera dirudi.

Bai, asko ikasi behar den karrera bat eta, gainera, arlo ezberdinetan: pertsonalki, edukitan, udal funtzionamenduan... eta teknologia berrian, nahiz eta orain arte ez dudan beharrik izan. Ikasi? Egunero! Umil ez bazara sentitzen kargu honetan ez dago zereginik; lanbide bezala hartu baino, bizipen bezala hartu behar da, ikasteko tokia, eta harremanak lantzeko tokia. Garbi dudana da politikan sartu izanaren arrazoiak bat dela politikarrien eta herriaren arteko tartea ikaragarria zela, hurbiltasunik gabea. Politikak uxatzen du jendea eta erakutsi behar dugu merezi duela parte hartzea. Udaleko atea hurbilago da Diputaziokoa edo Eusko Jaurlaritzakoa baino, eta erraza behar du izan alkatearengana iristea. Herritar orok zeresan handia du eta hitza izan behar du herriaren etorkizuna eraikitzerakoan.

## Bizitza aldatu zaizu?

Bizitza pertsonala asko aldatu zait, baita familiari ere. Lehen, adibidez, egunero nire aitarekin bazkaltzen nuen, kontu kontari jarduten ginen. Orain, berriz, ezin dut, eta, egia esan, faltan bilatzen dut. Gainera, ni beti bromazale izan naiz, eta bromak egiten badituzte nire kontura, umorearekin erantzuten diet. Ez dut inongo sesio gogorrik izan, eta nahiko ondo ari naiz moldatzen. Baina, bai, Udaleko kontuekin hurbiltzen zaizkizu kalean eta bizitza pribatua mugatzen dizute. Eta orain askotan *alkate* esaten didate, eta ez Nika!



## LABUR

### Informatika

#### Ikastaroa KZgunean

Azaroaren 7tik 11ra bitartean 10 orduko Internet ikastaroa izango da Aiako KZgunean. Eskolak arratsaldetan izango dira, 17:00etatik 20:00etara bitartean. Ikastaroa doanekoa da eta parte hartu nahi dutenek kultur etxera jo beharko dute izena ematera.

### Dantza

#### Balerdiren lan berria

Ikus-entzuleei beren lanak erakutsi nahi dizkieten koreografo hasiberriei zuzendutako Dantzan Bilaka egitasmoaren barruan lan berria estreinatuko du Eneko Balerdi dantzari aiarrak. *L'akua* obran uraren egoerez eta ziklo horretan sortzen diren tentsioez googoeta egin du Balerdik. Dantza klasikoan erabili ohi diren puntako zapatilen mugimenduen aukerak aztertu ditu, inprobisaziotik harago egiten duen hizkuntza bat lortzeko. Azaroaren 2an, aurkeztuko du bere lana Bilboko La Merced aretoan 20:30ean.

### Herri kirolak

#### Kintopeko idi-probak

Azaroan jokatuko dituzte Aiako probalekuan Aiako X. kintopeko idi probak. Saio guztiak 22:00etan hasiko dira eta honako partaideak izango dira: azaroaren 4an, Elgoibarko Soarte, Errenteriako Irarreta anaiak eta Lemoizko Andracka jate-txea; azaroaren 5ean, Lasarteko Telleria, Errenteriako Patxi Irarreta eta Aizarnazabalgo Basabe; azaroaren 11n Birleko Lopategi, Azkoitiko Ixidro erretegia eta Bermeoko Rafa Alegria; eta azaroaren 12an, Errezilko Bixki, Oiartzungo Artola, Aiako Izeta eta Zumarragako Sagaspe. Guztiak Aiako probalekuko 1.500 kiloko harriari 110 kiloko gainzama jarrita ari beharko dira tiraka, horretaz gain idien pisuaren arabera gainzamarrekin.

### Erromeria

#### Laja eta Mikel Andatzan

Agurtzanek eta Jon Elustondok irekitzen urriaren 23an Andatzako Erromeria Elkarteak antolatutako erromeria denboraldi berria. Lehen saioaren ondoren urriaren 30ean, igandean, beste trikitixa saio bat izango da Aiako Andatza Auzoan, Aristerrazuko plazan. Bigarren erromerian trikiti doinuak Lajaren eta Mikelen eskutik etorriko dira. Dantzarako aukera izango da 18:30etik 21:30era.

## Ehiza denboraldi bete-betean

**T**ritsi da udazkena, iritsi da urria eta harekin batera hilaren 12a, Espainian hainbeste garrantzia ematen zaion Hispanitatearen Eguna delakoa. Hemen, ordea, Euskal Herrian, Pilarika Eguna bezala ezagutu ohi dugu eta ehiztarion artean egun garrantzitsua da, izan ere, ehiza denboraldia irekitzen duen eguna baita. Aian, Gipuzkoako beste hainbat herri-tan bezala, ehiza postuen zozketa egin ohi da egunero azaroaren bukaera alde-ra arte-edo. Bitxia da zenbat jende etor-tzen den Aiara zozketa horietan parte hartzera. Orio, Zarautz, Getaria, Aizar-nazabal, Usurbil eta beste hainbat leku-tatik etortzen da jende mordo egunero hurrengo egunerako ehiza posturen bat suertatuko zaionaren esperantzian.

Bi zozketa izaten dira, bata Altzuzelai-ko lerroarena eta bestea Iturriozkoari dagokiona, eta bakoitza elkarte batean egiten da egunero iluntzeko zortzietan. Hilabete honetan iluntzero sortzen den saltsa horrek herriari ere bizitasun pun-tua ematen diola uste dut, eta hori beti herriarentzat onuragarria da.

Paseko ehizaz gain eta uso eta biriga-rroez gain, badira beste ehiza klase ba-tzuk ere gure inguruetan asko praktika-

***Oilagorren ehiza misterioz betetako ehiza klasea da. Benetakoa, gogorra, mendian txakurrekin egin beharrekoa***

tzen direnak; esaterako, basurdeena, azeriena edota oilagorrena besteak bes-te. Azken horri eman nahi nioke garran-tzia: oilagorren ehiza, misterioz beteta-ko ehiza klasea. Batzuen ustez benetako ehiza, gogorra, mendian txakurrekin egin beharrekoa eta horien lana beste guztiaren gainetik geratzen den ehiza mota. Aparteko xarma eta magia gorde-tzen dituen da oilagorren ehiza eta la-gun onak izanez gero, alegia txakurrak, eguneroko gauzetatik deskonektatzeko eta beste mundu liluragarri batean mur-giltzeko aukera ematen duena.

Horrenbestez, ehiztari garenon eta ez direnen artean errespetatzea eta ingu-rumena zaintzea ezinbestekoa da inola-ko arazorik izan ez dadin. Zorte on denoi aurtengo denboraldirako!



**Txokoak eta jendea**  
Hitzez taldeko emakumeak Ordizian

Landa eremuko emakumeen nazioarteko egunean, Hitzez elkarte-ko 30 emakume, tartean Arantxa Eizmendi, Josefina Elordi, Arantxa Eizagirre, Kontxi Argaña, Mari Jose Elizalde eta Mari Jose Mendizabal aiarrak Ordizian izan ziren. Iritziak eta esperientziak elkartrukatu zi-tuzten han bildu ziren beste emakume baseritarrekin.



## 08. Erromeriak Bentan

**E**txearen izen bereko auzoan, Igeldoko mugatik gertu, dago Benta, Ollobenta edo Zelaitxo izenez ere ezagutzen den baserria, XVII. mendeko nekazaritza bultzadaren ondorioz Orion eraiki ziren baserri berrietariko bat. Igeldotik gertu dagoenez, Donostirako joera handia zuten Bentako bizilagunek eta mezatarak Oriora joan arren, produktuak saltzera Donostira gerturatzen ziren.

Gaur egungo jabearen aitak 1937an erosi zuen baserria eta hara bizitzera joan zenerako jadanik taberna zen.

Benta bi aldiz erre da, orain dela 70 urte lehenengo eta duela 15 urte gero. Hain zuzen ere, gaur egungo Benta baserria, orain dela 15 urte inguru egindako berrikuntza lanen emaitza da. Baserriaren lau paretak kareztatuta daude, harritzko fabrika ezkutuan gordez, izkintan, ordea, harlanduzko kateak ditu.

Baserriaren eraikinari jatetxe eta taberna funtzioak dituen pisu bakarreko beste eraikin bat lotzen zaio, Oriotik Donostiarako bidea egokitu zutenean moldata zutena.

Bentan igandero egiten zen erromeria garai batean eta Orioko baserrietako bi-

kote asko han ezagutu ziren. Sanmartinetan eta Kontxako estropada garaian ere taberna lepo betetzen zen.

Guztia ez zen, ordea, festa Bentan eta baserri lanak ere egin izan dituzte han. Esne behiak eta demarako idiak zituzten baita baratza, pinuak eta sagarrondoak ere. Sagardoa Etxaiz baserrian egiten zuten, familiartekoak dira-eta hangoak. Baserriko bizimodua gogorra denez, itsasorako eta lantegirako bidea hartu zuten Bentako hainbat senidek, hala ere, orain dela gutxira arte jardun dute baserrian, behiak duela gutxi kendu baitituzte. Orain tabernako lanetik bizi dira.

[ ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA: ZEHAZTEN ]

**Goizeko**  
KAFETEGIA  
943 83 28 55  
Aita Lantxandri 30. bidea - ORIO  
Autobus parada ondoan

Faroko bakailaoa daukagu  
**ITSAS MENDI**  
gutziak  
Corkin Guter 3 - Tel: 943 24 07 74 - Orio

**INDO**  
Garraio frigorifikoa  
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA  
Ofaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO



Telefónica

# Herrian telefono bakarra zegoeneko

Orion telefonoa etxean izatea duela 35 bat urte arte ez zen ohikoa. Herrian gutxi batzuk ziren telefonoa edukitzeko pribilegioa zutenak, gainontzekoak elizako aldaparen hasieran, **gaur egun bikario-etxea dagoen tokian zegoen telefono zentralitara** joaten ziren telefonoz hitz egitera.

**TESTUA: IKER GURRUTXAGA**  
**ARGAZKIAK: FELIPE AROSTEGI,**  
**MARJE INDO ETA KARKARA**

**M**aria Luisa Karrera Makazaga, azaleko irudian irribarrez agertzen den neska gaztea, izan zen oriotarrek urte as-

kotan ezagutu zuten *telefonista*. Emakume goxo eta atsegin bezala dute gogoan oriotar gehienek. Hamabi inguru urterekin, eskola bukatuta, hasi zen telefono zentralitan ikasten eta, 14 edo zituela, haren ardura bere gain hartu zuen.

Istori honen parte da Usoa Indo Larrañaga ere, Maria Luisak bere kargua utzi eta gero hasi zelako han lanean. *Palom*a bezala ezagutzen dute herrian gehienek, Portu baserriko alaba bera. 14 urte zituela hasi zen lanean Usoa, eta hi-

ruzpala urtez jardun zuen zentralitan.

*Matilde Arostegiren irudia da guk dugun lehenengoa.* Horrela hasi zaigu hizketan Begoña Sarasua, zentralita edo *telefonika* deitzen zutena buruan ondo gordeta duten emakumeekin egin dugun solasaldian. Begoña Sarasuaz gain, Mertxe Bengoetxea, Maria Pilar Etxeberria, Piedad Etxeberria eta Maria Luisa Manterola izan ditugu hizketa lagun.

Zentralitaz gain, etxeko lehen telefonoen inguruan ere hitz egin dute.

**Lekua**

*Lehenengo aldiz beheko solairuan egon zen telefono zentralita. Gaur egun apaiza bizi den etxean, lehen Gaztañanekoak bizi izan ziren. Beheko solairua bitan zegoen banatuta, alde batetik Bixente barberoazegoen eta beste aldetik, karkara aldera, telefonika. Beranduago igo zuten goiko pisura. Horrela kontaktzen hasi da Maria Pilar Etxeberria. Gu gutxi joaten ginen hara, Goiko Kalen Bitor Dorronso- roren telefonoa geneukan eta harekin konpontzen ginen. Beheko kalea zapal- tzea galerazita geneukan-eta. Baina gogor- atzen dut beheko solairutik goikora hezetasun handia zegoelako pasa zutela. Lurra zaharra zen, bai goikoa eta baita behekoa ere. Begoña Sarasuak bertako te- lefonoak Gila umoregileak erabiltzen zuenaren berdina zela dio.*

Piedad Etxeberria gogoratzen da sartu eta eskuinera zegoela telefono zentrala. Mertxe Bengoetxeak ere sarrera bat eta, aurreraxeago, pare-parean kabinak zeu- dela gogoratzen du.

Usoa Indok, orde, lehen solairu har- tan hasi eta segituan udaletxearen az- pian, ondoren udaltzaingoa egon zen hartan egin zuen lan, parez pare poste- txea zuela.

**Langileak**

Matilde Arostegi da hizketalagunek go- goan duten lehen langilea. *Lehor sama- rraren irudia dugu gogoan, nahikoa za- kar hitz egiten zuenarena. Baina txikiak ginen eta ezin askorik oroitu.*

Felipe Arostegik, Maria Luisa Karre- raren gizonak, emaztea 1956tik 1972ra lanean egon zela kontatu digu. *Hamabi bat urterekin hasi zen han lanean, ikasten edo, baina aurrerago bertan egiten ziren lan guztien ardurua zuen.*

*Hamalau urte edo izango zituen ardu- ra guztiak bere gain hartu zituenean. Bai- na 1972an, bigarren umearen kargu ere egin behar, eta utzi egin zuen. Gainera, or- duan lokutorio zaharra ixtekotan ziren Telefonikakoak. Donostiako abenidara pasatzekoak zirela ere esan zuten. Han eraikuntza guztia telefonoz josita zegoen. Orion orduan hasi ziren telefono partiku- larrak jartzen etxez etxe.*

*Ana Mari, Maria Luisaren ahizpa ere noiz edo noiz ibili zen bertan, baina hura Donostiara joan zen lanera, hango Tele- fonicara. Maria Luisaren zerbitzua apar- tazen, atsegina zen eta laguntzailea, kon- tatzen du Mertxe Bengoetxeak. Guztiak ados daude irekia eta pertsona ona zela esatean. Buru aparta zuen, guztion tele- fonoak zekizkien eta atetik sartzerako ba- zekien zeinek nora deitzen zuen, gainera- tu du Begoña Sarasuak.*

*Telefonoan denborarekin funtziona-*

*“Kanpotarrak bai, haiek gehiago erabiltzen zuten. Joaquineta eta Carmencita eta... esaterako zentralitatik ibiltzen ziren. Frantses fabrikari ibiltzen zirenak eta Arozenaenean ibiltzen zirenak ere han ibiliko ziren seguru asko”*

—Maria Pilar Etxeberria

*“Hamalau urte edo izango zituen ardurua guztiak bere gain hartu zituenean. Baina 1972an, bigarren umearen kargu ere egin behar, eta utzi egin zuen”*

—Felipe Arostegi

*“Erdia han -Izkiñan- hazi nintzen, zubiz bestalde bizi ginenontzat aparteko herri batean bizi bagina bezala baitzen. Komunaren ondoan, barraren ertzean zen hango telefonoa”*

—Piedad Etxeberria

*“Guk bagenuen telefonoa etxean.*

*Baina amak besteak baino gehiago ez genuela izan behar erakutsi zigun, eta orduan isilpean geneukan telefonoa. Ez genuen goserik pasa, baina ezta luxurik ere. Eta telefonoa izatea nahikoa luxu bazenez, isilik gorde behar”*

—Karmele Esnal

*“Guk han inguruan baratza genuen, eta bertara joateko Enbilenetik pasa behar izaten genuen. Gure amari noiz edo noiz utzi izan zioten telefonoz hitz egiten Enbilenean”*

—Begoña Sarasua

*“Aste guztia etxetik kanpora ematen zuen senarrak kamioiarekin, eta espezial etorri zitzaigun etxean telefonoa izatea. 1965ean edo eskatu genuen, eta 1975a arte ez genuen telefonorik izan etxean”*

—Mertxe Bengoetxea

*tzen zuen gailu bat zegoen, zenbat kobra- tu behar zizun jakiteko, dio Maria Pilar Etxeberriak. Mertxe Bengoetxea gogo- ratzen da nola izaten zen deia: *Beraren- gana jo, nori deitu behar zenion esan eta deia egiten zen. Kalitate ona izaten zuten deiek. Zure deiak edozeinek entzun zitza- keen, Maria Luisak esaten zizun zein ka- binetara joan behar zenuen. Intimitaterik ez zen orduan.**

**Bezeroak**

Herriarrak gutxi ibiltzen omen ziren. Kanpoan familiartekoren bat zutenak eta lan kontuengatik telefonoa behar zu- tenak. Baina, gainontzean, medikuari deitzeko baino ez omen zuten erabil- tzen.

Kanpotarrek bai. Haiek gehiago era- biltzen omen zuten. *Joaquineta eta Car- mencita eta... esaterako handik ibiltzen ziren. Frantses fabrikari ibiltzen zirenak eta Arozenaenean ibiltzen zirenak ere han ibiliko ziren seguru asko* kontaktzen du Maria Pilar Etxeberriak.

**Herriko telefonoak**

Telefono gutxi ziren herrian eta zutene- tako batzuk ez zuten bazutela esan nahi izaten. *Aiestarandarrak, botikarioak, Er- zillaenean... halakoetan izango zen tele- fonoa* dio Begoña Sarasuak. Piedad Etxe- berriak Izkiña taberna hartan telefonoa zela ere gogoratzen du: *Ni erdia han hazi nintzen, zubiz bestalde bizi ginenontzat aparteko herri batean bizi bagina bezala baitzen. Komunaren ondoan, barraren ertzean zen hango telefonoa.*

*Ahotsak* elkartekoekin izandako elka- rrizketa saioan, Karmele Esnal oriotar- rarak, beren etxean telefono bazutela kontaktzen du. *Gure aitak, getariarra iza- tez, eskabetxerian egiten zuen lan. Haien eskabetxeria beranduago azkuetarrena izango zen. Horren ondorioz, guk bage- nuen telefonoa etxean. Baina amak beste- ak baino gehiago ez genuela izan behar erakutsi zigun, eta orduan isilpean ge- neukan telefonoa. Ez genuen goserik pasa, baina ezta luxurik ere. Eta telefonoa izatea nahikoa luxu bazenez, isilik gorde behar, kontaktzen du Karmele Esnalek. Lehen telefonoa gogoan dut nolakoa zen, belarrira eraman behar zen audifonoa eta zutabemoduko bat zen telefonoa. Han zuen mikrofonoa eta hari hitz egin behar zitzaion.*

Udaleko artxiboan gordeta dagoenez, 1965ean hasi ziren telefono lineak lurpe- an sartzen eta ordutik aurrera areagotu ziren telefonoak herritarren etxeetan.

Mertxe Bengoetxea gogoratzen da le- henengotako telefonoa Kandida Arruti, bere koinatak, izan zuela, zentralitatik gertu zegoen etxe batean. Gaur egun San





1.- Usoa Indo udaletxean egon zen azken zentralitan. 2.- Agintariak elizako aldapatik behera, atzean lehen zentralita zegoen eraikina dutelarik. 3.- Matilde Arostegi, telefonista izana, ezkerretik hasi eta lehena. 4.- Tertuliakideak. 5.- Gaur egun, *Blackberry* mugikorrek nagusi.

## ORIOKO AZKEN TELEFONISTA: USOA INDO

**B**i lokaletan egin nuen lana nik. Bi-garrena, aurreko udaletxean Udaltzaingoak zuen lokala zen. 14 urte nituela hasi nintzen, 18 urte bete arte. 1970etik 1974ra edo. Portu baserrikoa naiz eta aita taxi gidaria zen. Auzo guztian telefono bakarra zen, eta etxean amak aitaren lanagatik bat jartzea erabaki zuen. Amak, Bixenta Larrañagak, enkargu asko jasotzen zituen telefonoa genuenetik aurrera. Orduan, enkarguak ematera joaten nintzen baserri batera orain, etxe batera gero... batetik bestera. Gure amak Maria Luisa Arostegi ezagutzen zuen, eta hark komentatu zion nola lan gehiegi pilatzen zitzaioela eta ea neskarik ezagutzen zuen horretarako. Nik pila bat ditut esan eta nola eskola uztekoan nintzen, neroni bidali ninduen han lan egitera. Hara joan eta ikasi egin behar.

Telegramak eta eta diru bidalketak ere bertatik bideratzen ziren. Ardura handiko lana zen adin horretako neska baten tzat, izan ere herriko notizia askoren berri izaten nuen eta diru kopuru handiak ere jaso izan nituen, garai hartan 350.000 pezetako bidalketa bat egitea, sekulakoa zen.

Emakumeak izaten ziren gehien etortzen zirenak, medikuari deitzera orokorrean. Horretaz gain, Laredoko arrantza-leak ditut gogoan, etxera deitu eta dirua bidaltzea etortzen ziren. Autopista ere garai hartan egin zuten eta hango langileak ere guregana etortzen ziren.

Nik hasieran bi telefono nituen lanera-

Nikolas kalea denean. Gu albiste bila hara joaten ginen. Behin, umeak garbitzen ari nintzela, nire baitan semeari ariko banintzaio bezala esan nuen, noiz joango ote zara zu izeba Kandidaren etxeraino... Esan eta egin umeak. Han etorri zen esanaz: ama, izeba Kandidak esan dit aita gaur gauerako etorriko dela etxera. Umea bera bakarrik joan zen Benta-entetik beheraino eta notizia ekarri. Hori duela 45 urte izan zen, 1966an. Eta ordurako denbora luzea zeraman telefonoak etxe hartan, esan du Mertxe Bengoetxeak.

Baina ez da gogoan duten bakarra. Nik badut irudia Marilu Enbil eta bere familiak telefonoa bazutena, kontatzen du Begoña Sarasuak. Guk han inguruan baratza genuen, eta bertara joateko Enbiletetik pasa behar izaten genuen. Gure amari noiz edo noiz utzi izan zioten telefonoz hitz egiten Enbilenean.

Milagros Arostegik ere bazuen telefo-

ko eta, ondoren, lokal berrira pasa nintzenean, zerbitzua hobea zen. Jende gehiagok zuen aldiberean hitz egiteko aukera.

Egunero joaten nintzen lanera eta, askotan, bertatik etxeratzea asko kostatzen zitzaidan. Ixteko garaian baten bat sartzen bazen, bertan geratu behar baitzen. Hala ere, igandeetan, meza garairako, itxi egiten nuen. Lau mila pezeta kobratzen nituen, segururik gabe, eta kabinak jarri behar zituztela eta lokala ixteko orduan, ez nuen kalteordainik ez ezer jaso.

Horretaz gain, itxi aurretik Goardia Zibila etorri zitzaidan lanera, kaleko arroparekin, eta ea batzuk ikusi nituen galdetu zidan. Nik, erdi broman, ez niola zertan esan erantzun nien. Izan ere, herrian gutxirekin hitz egiten zuten, eta haietako bat nintzen ni eta ez nekien serio ari ziren ala ez. Haietako batek El Sevillano delakoak, tu te acordarás de mi esan eta fitxa egin zidan.

Telefono zentralitan lan egitetik Posta-etxera pasa nintzen, bertatik deituta, eta gustura ibili nintzen. Egun batez, nagusiak ezin nuela bertan jarraitu esan zidan; El Sevillanok egindako fitxaren ondorioa izan zen hura.

Gainontzean, oroitzapen onak ditut, herritar askorekin izan nuen tratua, tartean Jorge Oteizaren egoskortasuna ere ezagutzera iritsi nintzen. Zarautzen bizi naiz gaur egun, eta bertako telefonista zena ezagutu dut kalean, haren ahotsa entzunda.

noa, Eusko Gudari kalean, Maria Pilar Etxeberriak gogoratzen duenez. Guk handik deitzen genion medikuari beheko kalean bizitzera jaitsi ginenean.

### Telefonoa izatearen aldaketa

Mertxe Bengoetxearen senarra garraiolaria zen. Kamioiarekin ibiltzen zen batera eta bestera, eta telefonoa izateak izugarri aldatu zien bizitza. Aste guztia etxetik kanpora ematen zuen, eta espezial etorri zitzaigun etxean telefonoa izatea.

Hamar urte luzez itxaron behar izan zuten Mertxe Bengoetxeak eta familiak, telefonoa jartzeko baimena eskatu eta etxean jarri zioten arte. 1965ean edo eskatu genuen, eta 1975a arte ez genuen telefonorik izan etxean. Garai hartatik aurrera ia etxe guztietara iritsi zen telefonoa, baita kaleko lehen kabinak ere. Artxiboko datuek hala diote, 1975ean, Calvo Sotelo kalean, jarri baitzen lehena.

# Gora Reala!

**A**uzolana, sormena, elkarbitzita, umorea, eztabaida, ardura, nortasuna, aldarrikapena, parekidetasuna, gogoeta, borroka, herrigintza, euskara, ama-lurra, eskubideak, oraina, parte hartzea, kultura, geroa...

Oraindik ez zarela konturatu zertaz ari naizen? bai noski, gaztetxez ari naiz. Bai, herri grisei kolorea jartzen dieten proiektu horietaz. Bai, auzo hutsak ilusioz betetzen dituzten espazioez. Bai Etxeluzez, bai Putzuloz eta nola ez, guztion ispilu izan den eta den Kukutzaz.

Gazteok sarri entzun behar izaten dugu ez dugula inizatibarik, lanari bizkarra ematen diogula –berak aurpegia erakutsiko baligu bezala–, porroetan, parrandan, bakarrik pentsatzen dugula. Hori dela gure sinesmena. Gure erlijioa. Akaso, arrazoiaren zati bat ez zaie falta; baina, orokorrean, ez nator bat. Orain saiatuko naiz guztia txukun ta garbi azaltzen. To, nire argudioak!

Jarri zaitezte herrian dugun egoerari

begira, begiratu ingurura eta konturatu-ko zarete –konturatu nahi baduzue, behintzat– Harribilen, Amnistia-  
ren Aldeko Mugimenduan, Txur-  
rumuskin, batukada taldean,  
Saltxeretan, Etxeluzen... gazteok  
garela motorra. Eta ez diesela.  
Gukkudeatzen ditugu talde hauek.  
Geronek sortu eta geronek aurrera era-  
man. Gure herrian bezala, Euskal Herri-  
ko hainbat eta hainbat txokotan, berdin.  
Jakina, hau ez zaie instituzioei batere  
gustatzen. Ez baitute guzti honen kon-  
trolrik; ez baitute etekinik ateratzen.

Bestela ezin dut ulertu Kukutza desa-  
lojatu izana. Are gutxiago moduak. Ezin  
diot nire buruari esplikatatu Segiko kide  
izateagatik, lan publikoa egiteagatik, ji-  
poitua, kartzelatua izan zaitezkeenik.

**Gazteok gara herri  
honen motorea. Eta ez  
diesela. Gukkudeatzen  
ditugu talde hauek.**

Eta, zoritxarrez, honelako milaka kasu  
ezagutu ditugu, modu honetako mila  
trabaja-jan. Baina askotan erakutsi  
dugu ez daukagula geldirik burmu-  
ina. Sistema kapitalistak nahi gai-  
tuela geldirik, lo, sofan botata, *play  
station* arene mundu birtualean  
murgilduta, bizioz josita. Eta ko-  
munikabide gehienak dituzte bidela-  
gun, gure ekintzei segundorik eskaini  
gabe, gazteok sortutako alternatibei  
ahal den garrantzi gutxiena ematen.

Baina tira, begiak irekita dituen edo-  
nork ikus dezake, batzuk txintxinaren  
melodiaz dantzan dabiltzan bitartean,  
badaudela izerdiz, borondatez, muxu-  
truk dabiltzan pertsonak. Bakoitzak era-  
baki dezala zerk duen balio gehiago.  
Jakin ezazue guztiok, nahi izanez gero,  
ostiralero 18:00etan biltzen garela Etxe-  
luzen. Eta, eskuak zabalik, bertan egon-  
go garela ideia berriei itxaroten. Giro bi-  
kaina eta jende jatorrarekin egingo du-  
zue topo. Bai horixe! A! Izenburuarena  
jende gehiagok irakur dezan izan da.

**ITZALA**  
kartakoa jokatzen  
arazten  
Tel. 943 83 12 50

**iñaki argazkiak  
caperochipi**  
ezkontzako asmarik bai?  
www.ikapero.com/ezkontzak  
659378751  
ikapero@ikapero.com

**gizarte  
kutxa**

**TANATORIO ZARAUZ**  
EUROFUNERARIAS TALDEA  
Hileta eta zerbitzu orokorrak

\* Donortza eta probintziako ospitaleetan  
\* Alderako zerbitzua  
\* Belatorio gelak  
\* Korioak, eskolak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarautz  
Tel. 943 83 49 37 / Fax. 943 83 00 43  
e-mail: hileria@tanatoriozarautz.net

943 83 09 86

**KOASTA**  
Wifi zerbitzua  
Kupak, gau giro aparta...

**TAILER MEKANIKOAA  
MANTEROLA S/L**  
INDUKTIBOAK BAIKORRIK

Santiago Ouzoa - 18 postakutxa  
Tel. 943 830 743  
Fax. 943 134 634  
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net  
70 810 ORIO - GIPUZKOA

**TMM**  
AENOR  
150 9000  
Esterako balbula  
AENOR kalitate ziurtaginduna

**KOLON TXIKI**  
Herriko Enparantza, 4  
ORIO  
Tel. 943 83 00 44

**Maider Arrilaga Sarasola** - 138. Kol. zenb.  
Arrantzale 63 - 20810 - Orio - Gipuzkoa  
Tel. 943 575 361

**oinarri**  
POOLOGIA ZENTROA

# Garai berriak

**O**stegun gauean irakurri nuen KARKARAK iritzi artikulua hau idazteko luzatutako gonbita. Arratsaldeko zazpietan ateratako komunikatuaren ondoren, ezin inolaz ere ezetz eman. 3000 karakteretan ezin diezazuket artikulua sakon bat eskaini, KARKARAK dituen orri guztiak beteko nituzkeelako; baina, hala ere, noan aipu batzuk egitera.

Gaur ofiziala da ETAk borroka armatua behin betiko utzi duela. Historia pixka bat egite aldera, interneten sartu naiz ETAk gaurdaino egindako su-etenak ikusteko. Mordoxka bat izan dira, ofizialki 1981eko otsailean lehenengo, 2011ko urtarrilean azkena. Badirudi ETak honelako zerbaite iragarriko duen azken aldia izan dela. Egin dezagun lan, hori horrela izan dadin!

Izena Euskadi Ta Askatasuna badu ere, ETAk eginiko atentatu bakoitzeko, askatasuna urrunago zeukan gure herriak. 1999ko bake-aldi frustratu haren ondotik eta, bereziki, 2006koaz geroztik, Espainiako gobernuak hasitako terrorismoaren aurkako estrategiak

fruitua eman eta hamarkada bat geroago, gauden tokian gaude. ETArri ikusarazi diote ez daukala aurrera jarraitzeko aukerarik, eta berandu baino lehen, amaiera posibleen artean, duinena aukeratzeko parada izan dute.

Borroka armatuak ez dizkigu desgraziak besterik ekarri. Alde batean hildakoak, estortsionatuak edota gau eta egun bizkartzainekin bizi behar izan dutenak. Beste aldean, sakabanaketa edota torturak. Kalte pertsonalak izugarriak izan dira, eta hutsalak, horrek guztiak ez duelako ezertarako balio izan. Hildakoek ez dute ezertarako balio izan. Politikoki, ostera, abertzaletasunari baino kalte handiagoa ez dio inori ekarri ETaren presentziak, Martxelo Otamendik kontrakoa esan arren.

Berriako zuzendariak igande honetan, hilak 23, bere egunkarian publikatutako artikulua bati erantzutea gustatuko litzaidake. Azken egunetan hainbatetan irakurri dudanaren kontrara, Otamendiren esanetan, ETArri zor diogu 60ko hamarkadan abertzaletasuna berpiztu izana. Behin Fermin Muguruzari entzun nion gaztetan erdaraz egiten zutela, euskaraz egitea atzerakoia zelako. Agian, gaur euskara babesten aritzearen monopolioa dutela erakutsi nahi duten horiei, ETak erakutsi zien euskaldunona zen aberri bat bazela, eta abertzaletasunak hura maitatu eta haren eskubideak defendatzeko borrokan ziharduela. Bada, Martxelo, esan nahi dizut abertzaletasuna finkatu zen giroan, baserri-munduan, euskalduntasun edo abertzaletasunaren gar hori ez zela sekula itzali eta, ondorioz, gure aitona-amonek ez zutela ETaren beharrik izan bizirik zirauen sentimendu hura mantentzeko.

Aurreko guztia esanda, harrotasuna eta nagusitasuna bazterrean uzteko unea dela pentsatzen dut, betidanik demokratikoki politika egin dutenen bidera etorri direnei eskua luzatu eta denon artean bidea egiteko garaia da, gure etorkizuna euskaldunok erabaki ahal izan dezagun. Euskal Estatu sortzea posible izaten hasi da. 2015erako marko juridiko eta politiko berria izango omen dugu. Ea egia den.

## Jai dugu!

**K**ARKARAKO bulegora, kultur etxera, iritsi nintzen astelehenean, eta jai giroa aurkitu nuen atariko eskaileretan: hamar bat haur, jiji eta jaja, zain. *Itxita dago. Nolatan? Ez dakigu. Zain gaude sartzeko, baina inor ez da etorri atea irekitzera. Ba, sentitzen dut, ezin dizuet lagundu esanez ekin nion nireari.*

Alferrik zeuden zain, ordea, udal langile guztiek jai hartua zutelako, astearteko Gernikako Estatuaren Eguna erekin zubia egiteko. Erregistrora joan zenak, dokumentua sartu nahi zuenak, aholkua eskatu nahi zuenak, telefonoz kontsulta egin nahi zuenak, kultur etxeko zerbitzuak erabili nahi zituenak... jai zuten. Beno, ez, ez. Jai, jai, udaletxeak zuten, baina ez ziguten abisatu, ez kartelik jarri, ez webean iragarri. *Sin más! Hala! Eta datorren astean berdin! Zaila zuten, bada, herritarren zerbitzura lan egiten dutenen erdiek astelehene bat jai hartzea eta besteek bestea, urteko egutegia zehaztu zutenean. Klaro!*

Bada, herritar xumeok ez genuen haien onerako erabakitako festa zapuztu nahi, beraz, Hamelingo flautistak egin zuen bezala abiatu ginen zigi-zaga lerro luze bat eginenez zubiraino -letrarekin hartutako askatasunaz- ozenki kantatuz:

*Zubiri, zubiri  
Nongori, nongori  
Non d'o alkatea 'saidazu?*

**Berriako zuzendariak igande honetan, hilak 23, bere egunkarian publikatutako artikulua bati erantzutea gustatuko litzaidake. Azken egunetan hainbatetan irakurri dudanaren kontrara, Otamendiren esanetan, ETArri zor diogu 60ko hamarkadan abertzaletasuna berpiztu izana.**



**LORETXU JATEKIA**



Eusko Gudari, 18 Tel: 943 83 00 07

**LURDES**  
MIRIBIDIAK



Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

Ho zuzandegia  
**MARIJO**



Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - bujo  
Tel. 943 13 47 29  
ORIO

**MIRANDA**



tartina, eta, latho, osakera...  
betar direz arribi lantze  
egitea dirakuzki

Orizate bidex 1 -609 42 32 70- SABAUTZ

**Portu**  
ERRETEGIA

Santa Eneko Auzoa, 49  
943 69 44 64  
20309 A.A-ORIO

*kuartak laserko oliboak  
niriko orotak eta noko noko*

**Sagasti**  
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tf / fax: 943 13 00 77  
sagastileihoak@telefonica.net  
Arrantza kalea, 88  
20810 Oriz (Gipuzkoa)

**SARASUA ERRETEGIA**

**Plater bereziak:** Arrain zopa  
Arrain eta heragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel: 943 83 00 05/  
943 13 25 32

**kutixi**  
kafetegia  
GOSARI-GORDAK

Arizaga 5, 20810 Oriz  
Tel: 943 13 11 17

**uranga**  
AUTOMATIZAZIOA



**Aliprox**

Eusko Gudari Kalea 13-15  
ORIO  
943 83 38 71

**Orioko Herri Ikastola**

Guraso Kooperatiba  
ABESLARI KALEA, 8  
TEL: 943 83 47 04  
FAX: 943 13 09 38  
orio@ikastola.net  
www.oriokoikastola.net

**Sega**



943 83 22 29

**Lizaso**  
dekorazioa



Eusko Gudari, 40  
Tel. 943 83 00 04 Fax: 943 83 00 07

**LUXARBE**  
Igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnor: 943 63 59 00

FISIOTERAPIA Garbizo Anategi, Iba Norala Wierszen  
MUTRIZONETA, Garbizo Auzua

**sinergia** investigacion fisioterapia

Ibañ ando, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 74 85 95

Sukalde eta bainuen erreformak

**XANTI MUJIKA**  
Igeltseritza

699 46 76 21  
943 13 10 37

# Gaia emanda Ehizaren mugak

*Ehiza garaia zabaltzen da beti urte garai honetan eta, hori dela-eta, iritzi bana eskatu diegu natur taldekoei eta ehiztari bati. **Mugatu behar al da ehiza? Eta nola?***

## Errespetua gauza guztien gaineretik

**E**hiza denboraldia hasi berria izanik, pil-pilean daukagun gaia da; aurtentzen, gainera, legedi berriekin datorrena. Arau berri bat esatearren, aurtentzen, bide eta etxeetatik ehizan jarduteko zegoen gutxieneko distantzia bikoiztu egin da. Ehizak librea beharko lukeen ala ez, ez dakit. Librea oso hitz zabal eta, era berean, polita da eta ez dago non hasten den eta non bukatzen den esaterik. Gaur egun, ordea, batzuen zorionerako eta besteen zoritxarrerako, badirudi ehiza eta libre hitzak ez direla egoki uztartzen.

Ez zait iruditzen, muga batean edo bestean ipintzeko pertsona egokiena naizenik, lehenxeago edo geroxeago alde batera egingo bainuke herren. Baina naturarekiko izan behar dugun errespetua noiz galtzen den ohartzeko ez da masterrik behar, natura ezagutzea besterik ez.

Muga gehiago ezartzea baino eraginkorragoa deritzot guztiok ingurukoekiko errespetu handiagoa azalduko bagenu. Baina ez ehiza munduan bakarrik; ez, etxetik irten eta natura ukitzen dugun guztiok eta ukitzen dugun momentutik baizik. Besteen

lekuan jartzen ikasi beharko genuke eta besteen iritzia kontuan hartzen. Eta ez gaitetzen betiko orokortze eta muturreko adibideetan erori, miserablea izateaz gain, argumentatzen jakin ez eta kezatzeagatik isildu gabe zaunkaka dabilen txakurrak ematen baitugu.

Jakina da arau batzuk ditugula eta arauak betetzeko daudela, baina legeak buruz ikasita izatea baino lehen, *gizalegea* eduki beharko genukeela kotuan iruditzen zait.

Baina, *eskubide* hitza oso boteretsua da gaur egun, eta denok dakigu zenbat indar duen *nire eskubideak zapaltzen ari zara* esaldiak.

Adibidez, ez da ezer kostatzen, mendizale batek gure aurrean pasa behar duenean eskopeta deskargatzea; ezta uso postuen inguruan paseatzen edo bizikletaz igarotzen ari bagara, txistua jotzeari uztea edo, ehiztariak mesedez eskatzean, gelditu edo ezkutatzea. Jakina, hori egin behar dutenek esango dute beren eskubideak zapaltzen ari direla. Baina hemen beste adibide bat: gure etxean, amak lanean gaueko txanda duenean, goizez lo egin nahi izaten du, eta gainontzeoak ahalik eta isilen ibiltzen saiatzen gara. Esan genezake *gure hitz egiteko eskubidea zapaltzen ari da*; baina, errespetuz, isilago ibiltzen gara. Horixe, errespetuz.

**Jon Ander Azpiroz**  
Ehiztaria

## Koaderno urdineko buruketa

**E**kastola garaiko *Buru-ketak* koaderno urdina gogoan, horrela dio ariketak: Baso bateko erbi kopurua 105ekoa da eta hauek harrapatu nahi dituzten ehiztariena 972koa. Zenbat ehiztari geratuko da erbirik ehizatu gabe? Ariketa erraza, ez da? Bai, asmatu duzu, 867 ehiztari da erantzun zuzena.

Baina pentsa galdera beste era bat balitz: zenbat ehiztari geratuko da erbi gabe hurrengo urtean? Den-denak, 972 ehiztari, alegia.

Ehiza beharrezkoa da. Naturalki erregulatzeke gai ez diren populazioak erregulatzeke beharrezkoa. Muga behar duten horiek arrastotan sartzeko behar dena. Gure buruari galdera egin beharko genioke ea zergatik ezin ote daitezkeen naturalki kontrolatu populazio horiek –agian, harrapari guztiak aurrez deuseztatu ditugulako–, baina hori beste upeleko ardoa da eta gaurkoa hau baita: non dago ehizaren muga?

Muga ehizatu beharreko populazioan bertan dago. Hurrengo belaunaldietan

**Ez ditugu dozenaka kartutxo huts berriz ere etxera bueltan ekarri beharko mendiar joaten garen bakoitzean**

populaziorik izan nahi badugu, gaurkoa bihar ez desageratzeko adina bakarrik ehizatu ahalako dugu. Hurrengo belaunaldiek ere ehizatu ahal dezaten, kantitate zehatz bat baino gehiago ezin harrapa daiteke.

Beraz, goazen gure *Buru-ketak* koadernora berriz ere: datorren urtean basoan berriz ere 105 erbi eduki ditzagun 30 baino gehiago ezin harrapa genitzake. Geratuko diren 75 indibiduotatik hilko diren eta jaioko diren arteko balantzea eginez berriz ere 105 erbi izango baititugu. Beraz, gure maisu edo maistra pozteko 30 ehiztari esan beharko.

Hala ere, ez dakit berriz ere oker ez ote nabilen! Hobeto pentsa dezagun ariketa zail horren erantzuna. Orain 972 ehiztari baditugu, eta horiek 30 erbi besterik ezin badituzte harrapatu, beste 942 ehiztariak sobera ditugu. Ehiza, naturalki erregulatu ezin daitezkeen populazioak erregulatzeke tresna bada, 942 ehiztari horiek ehizatzea da erantzun posible bakarra orduan. Hori bai!

Zorionekoa ni, azterketan 10eko bat poltsikora. Eta bide batez, askoren belarrientzat bake galanta eta motxilentzako arindu ederra. Ez baititugu dozenaka kartutxo huts berriz ere etxera bueltan ekarri beharko mendira joaten garen bakoitzean.

**Garbiñe Manterola**  
Herrio natur taldeko kidea

**Legea baino gizalegea eduki beharko genukeela kontuan iruditzen zait**



## » INKESTA

**Urriaren 12ko Hispanitatearen egunean jai egitearen aldekoa zara?**

58 erantzun jaso ditu 303. KARKARAN egindako galderak. **%29a** alde agertu da, **%55** kontra, **%15** bost axola zaio kontua.

**HURRENGO GALDERA**

**Zer iruditu zaizu udaletxea itxita egotea, langileek bi jai-zubi hartu dituztelako segidan?**

Erantzun ezazu [www.karkara.com](http://www.karkara.com) webgunean eta emailtza 307. Karkaran argitaratuko dugu.

## » OSPAKIZUNA

**Goiuri, Oinatzen zaintzaile txikia**

Goiuri eta Oinatzen Berasaluze Trillo dira argazkikoak Lore eta Rubenen alaba eta semea. Urriaren 6an jaio zen Oinatzen, goizeko ordu txikietan, presa handiarekin. 2 kilo eta 760 gramo pisatu zituen eta 48 cm neurtu. Arrebak ez bezala ile beltza eta luzea ekarri du. Oso ondo zaintzen du arrebak Goiurik, musu pila ematen dizkio eta bainatzen ere laguntzen dio. Desiratzen dago noiz haziko den, berarekin jolasteko.

## » ZORITXARRAK!

*Harria mugitu ez duenari*

**A**urreko ostiralean, urriaren 2lean, hondartzatik Itxaspera doan bidean, sekulako harritzarra erori zen menditik. Tona erditik gorako hareharri puska! Kontua da, eguna joan eta eguna etorri, harria toki hartatik mugitu ere egin gabe egon dela, horrek sortzen duen arriskuarekin.

Zorionez, ez da istripurik gertatu, harria ez delako dagoen tokitik mugitu, baina sekulako triskantza eragin zezakeen maldan behera amilduz gero.

Horregatik guztiagatik, gure zoritxarrak harria mugitzeko ardura zuenari zuzentzen diogu, halakoetan askoz ere azkarrago eta tentu handiagorekin jokatu beharra dagoelako.

**libe**  
dietetika  
elikadura aholkularitza

eusko gudariak 35 - ORIO  
[ sareta Arantzale kalea ]

943 53 64 94 - 697 23 86 56  
libegarmendu@gmail.com

  
**Zaragueta  
Eskola Oro**

telefonoa: 943 89 40 52  
e-mail: 012117aa@hezkuntza.net

  
[www.karkara.com](http://www.karkara.com)  
Fresko-fresko, zuretzat!

**Izarra Bideoa**  
Eusko Gudariak 44 / Arizaga 15. Urte 943 83 38 81

**Etxetresna elektrikoaren zure denda**

TIEN 21 Izarra Bideoa TIEN 21

**REMOVE PLANA %20KO DESKONTUA**

**10 HILABETE INTERESIK GABE!**

# Joxe Atorrasagasti, Zentraleko pilotari handia

## Oroimenaren kutxa

Joxe Atorrasagasti Orion jaio zen, 1934an. 17 urterekin debutatu zuen Valentzian, zesta puntan. Urtebetera Bartzelonara joan zen, han hiru urte eman ondoren, 21ekin salto egin zuen Amerikara, Estatu Batuetara. Floridan hasi zen, beste pilotari batzuekin batera. Urtebetera Mexikoko Tijuana joan ziren. Han Esperanza Alonso pilotari katalana ezagutu eta harekin ezkondu zen. Urte gutxitara Estatu Batuetara itzulita, 1962an, Orlandon, pilotari onena izendatu zuten. Beste bi urte eman zituen Florida-ko *West-Palm Beach* frontoian. Orduan, udaran Euskal Herrira etorri ohi ziren pilotariak jokatzera: Durango, Mungia, Donibane Lohitzune... Udara pilotan jokatzeko segitzeko erabiltzen zuten, baina bide batez, familia ikusi eta Ameriketara irabazitako sosa gastatzeko. 1964an, Donostiako Urumea frontoian nazioarteko partidu bat jokatu zuen: Espainia-Kuba, Franco ikusle zutela, Jose-eta irabazle atera ziren.

Ameriketako aldia bukatu eta hona etorrira, segida eman nahi izan zion etxean -Toki Alai jatetxean- txikitan ikasitako tradizioari, jatetxe bat zabalduz. Baina Floridan ia euririk gabe bizitzen ohituta, nahiago zuen Espainiako



Joxe Atorrasagasti zesta-puntista bikaina izan zen. ARTXIBOA

hegoaldean jarri jatetxea, eta Malagako kostaldera jo zuen. Marbella garestiegia zela eta, azkenean, Malagan bertan ireki zuen bat, andrearekin.

Bost seme-alaba izan zituzten, lehenengo biak Amerikan, beste hirurak Malagan. Jatetxean Euskal Herriko platerak ematen zituen: bakailoa, tripakiak, legatza saltan, txipiroiak, atuna entsa-

ladan, almejak..., eta bertakoa: bokeroiak, txanketeak... *Pisu handiko gizona, pilotari bikaina, langilea, apala eta atsegina, Joxe.* Paco Fadon kazetariak jasotakoa da hori, Malagako egunkari batean.

Joxek jatetxea itxi zuen, baina Malagan segitzen dabil zuten.

[ IÑAKI ITURAIN ]

## » JAIOTAKOAK

■ Lena Pereira Altuna, urriaren 7an, Aian.


## » HILDAKOAK

■ Eugenio Azkue Azpiroz, urriaren 24an, Orion, 83 urte.

■ Joxe Manuel Lasa Aurizena, urriaren 14an, Aian, 46 urte.

■ Joxe Zubia Bernardo, urriaren 11an, Orion, 81 urte.

.....  
 .. ESKELA edo ..  
 .. urteurreneko ..  
 .. gogoangarria ..  
 .. KARKARAN jarri nahi ..  
 .. baduzu, deitu gure ..  
 .. telefonora: ..  
 .. **943 83 15 27** ..



**ODITZ**  
 Bona behar eta nahiak  
 gurea da emandakoa  
 tel. 943 83 00 89

**PERTS ANAK**  
 A K O M A Z  
 Aluminio, PVC,  
 Vehizunak,  
 Motorrak...  
 (tel. 943 83 09 01) Mugikorra 600 76 52 27

**SOLOZABAL**  
 autoeskola  
  
 Eusko Gudari, 30-1, ezk.  
 telef: 943 83 08 12

**URAITZ**  
 Lurrindogin  
 Lurrindogin  
 Euzko Gudari, 30-1, ezk.  
 telef: 943 83 08 12



# “Hazi eta zaintza onekin egindako urtetako lana dago sarien atzean”

**Jose Angel Zendoia**

Ganaduzalea

Longa baserriko ganadutegia ‘blonda’ arrazako abelburuen ukuilurik onena dela erabaki zuten Markina-Xemeinen jokaturako Euskadiko Txapelketan. Lehen postu ugari eta sailez sail ere sari ugari lortu zituzten Jose Angel Zendoia abereek.

## IRATIAGIRREAZALDEGI

Igeldoko Gure Kaiola etxean bizi bada ere, emaztearen gurasoek hartutako Longa baserrian du ganadutegia. Egunero egiten du Benta aldera bisita behiak eta idiskoak gobernatzera. Longan gus-tura dagoela dio, hasieratik han ari da lanean eta ahal duen artean jarraitzeko asmoz, gainera. Blonda arrazako behientzat badirudi leku ona dela Orio.

### Nolatan jarri zenuen ganadutegia?

Etxean ganadua beti izan dugu esnetarako dozena erdi bat-edo. Gerora, Longa baserrian, 1984an hasi nintzen. Lehenengo behor batzuk jarri nituen, dena zikinak hartuta zegoelako eta hura garbitzeko. Orain, handi eta txiki, guztira 29 buru ditut. Bizitarako saldu ezean haragitarako izaten dira.

### Denak blonda arrazakoak, zergatik?

Gehiena gustatzen zaidalako. Iparraldeko arraza da, Akitaniakoa. Gorputz osara bikaineko animaliak dira, luzeak eta zabalak. Eskutan, berriz, nahiko gozoak. Izaten dira bestelakoak ere, baina gehienetan moldatzeko egokiak dira. Horretarako gazte-gaztetan hartzen ditut, soka jarri ere dezente, bestela batzutan zakarragoak baitira.

### Ganaduak haragitarako al dauzkazu?

Arraza puruan gabiltzan ganaduzaleok gehienak bizitarako, ugalketarako –bigak behiak izateko eta idiskoak zezentarako– saltzen saiatzen gara. Bizitarako saltzen ez direnean, lehengusu bat bادت harakina eta harengana bideratzen ditut. Orduak-eta kontatuz gero behiak haztea ez da errentagarria eta, ondo egin nahi bada, ordu asko sartu behar dira.

### Ugalketarako edo haragitarako bai, baina lehiaketetarako ere prestatzen duzu ganadua, ezta?

Bai, lehiaketak egiten dugunaren erakusleho dira. Euskadin ez dago lehiaketa askorik, baina parte hartzen dugu. Gipuzkoakoa bi urtean behin izaten da eta aurten jokatu da Azkoitian. Euskadikoa, berriz, urte batean Gipuzkoan egiten da eta hurrengoan Bizkaian, eta aurten Bizkaian izan da, Markinan. Bestalde, badira urte batzuk Salamankara ere joaten gara.

### Nola lortzen da behi egoki bat?

Hazi egoki bitartez eta ahal den zaintza guztiarekin egindako urtetako lana dago horren atzean. Ni iturgina naiz eta ganadua zaletasuna izan arren, derrigorrezkoa da asko gustatzea, bestela ez dago honetan aritzerik. Egunero etortzen naiz eta asteburuetan egiten ditut lanik gogorrenak; neguan, esaterako, azienda gehiena barruan izaten denez, simaurketak izaten dira eta horretaz gain, bazterrak garbitzen ere ibiltzen naiz.

### “Blonda arrazako behiak gustatzen zaizkit gehien Gorputz osara sendokoak dira eta eskutan nahiko gozoak”

“Nik egin izan dut epaile lana ganadu lehiaketetan eta metroarekin neurtu ezin denez, ez da batere erraza irabazlea zein den esatea”

### Azienda ongi zaindu duzula dirudi sari asko jaso dituzu eta.

Sariak hainbat ataletan izaten dira eta irabazleen artean txahal urrixik onena eta ukuilurik onena ere aukeratzen dituzte. Baloratzeko, berdintasuna, fintasuna, ibilera... hartzen dituzte kontuan. Epaileak segun eta zein diren emaitzak ezberdinak dira. Nik egin izan dut epaile lana eta metroarekin neurtu ezin denez, ez da batere erraza. Euskadiko txapelketan sailez sail lehenengo sei postu, bigarren bat eta hirugarren bi lortu ditut. Haziko behirik onenarena eta ukuilurik onenarena ere eman dizkirate. Orain dela bi urte Gipuzkoakoan jaso neukan, baina Euskadikoan estreinako aldia izan da. Sariak jasotzea beti da pozgarria, lana egin denaren seinale baita.



KARKARA

» AZOKA

**Iragarkietarako txokoa.** Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

**Errentan**

- Etxea alokatzeko Orion. Hiru logela ditu. Altzariekin eta beharrezko tresneriekin. 750 euro hilean. Tf.: 678 90 61 66 (Arantxa).
- Etxea alokatzeko Anibarko Portuan. Bi logela ditu eta urte osorako alokairuan eskaintzen da. Tf.: 615 75 76 48.
- Garajea alokatzeko Aita Lertxundi 2lean. Tf.: 609 91 73 99 (Igor).

**Lan eskaera**

- Neska euskalduna umeak zaintzeko prest, arratsaldeak. Eskarmentua daukat. Interesatuak deitu lasai. Tf.: 679 85 23 41.
- Neska euskalduna etxeak eta eskaratzak garbitzeko prest. Tf.: 666 03 67 80.

- Neska arduratsuak etxeak garbitu eta adinekoak zainduko lituzke. Tf.: 600 74 56 86.
- Esperientzia duen bertako neska bat eskaintzen da eskola partikularrak emateko. Tf.: 680 45 35 63 (Maialen).

**Aurkitutakoak**

- Ume baten txaketa grisa aurkitu nuen irailaren 26an Ibai Ondon. Galdutakoak deitu zenbaki honetara: 943 83 44 98.

**Galdutakoak**

- Urriaren 2an, Baxoaldeko parkean *Nenuco* panpina ahaztu genuen hartz marrazkidun plastifikatutako poltsa batean. Hartu duenari udaltzaingoa uz-

teko edo 615 71 36 00 telefono zenbakira deitzeko eskatu nahi genioke.

- Erloju urdin bat galdu nuen, Aimar izena idatzita zuena, urriaren 8an, Aiako frontoian. Bilatuz gero, Iturriozenara eraman.

**Saltzeko**

- Intxaurrak salgai. 4 kilo 10 euro. Tf.: 943 83 44 98.
- Garaje itxia salgai Mendibeltz futbol zelaiaren azpian. 20,67 metro koadro. Tf.: 646 28 99 07 edo 630 37 01 38.
- Andatzen, erreformatu berri dagoen 138 metro koadroko etxebizitza salgai. 4 logela eta 2 bainugela. 278.000 euro (negoziagarririk). Tf.: 620 33 53 98. atatu nahi genioke.

» ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
28	05:50 eta 18:25	11:57 eta ____	☾
29	06:35 eta 19:01	00:18 eta 12:44	☾
30	06:21 eta 18:50	01:03 eta 12:32	☾
31	07:10 eta 19:43	00:51 eta 13:24	☾
01	08:05 eta 20:44	01:42 eta 14:22	☾
02	09:09 eta 21:57	02:41 eta 15:29	☾
03	10:26 eta 23:18	03:51 eta 16:45	☾
04	11:44 eta ____	05:09 eta 17:59	☾
05	00:30 eta 12:50	06:21 eta 19:00	☾
06	01:26 eta 13:43	07:19 eta 19:47	☾
07	02:10 eta 14:25	08:04 eta 20:26	☾
08	02:47 eta 15:01	08:43 eta 21:01	☾
09	03:20 eta 15:35	09:19 eta 21:34	☾
10	03:51 eta 16:07	09:53 eta 22:06	☾
11	04:22 eta 16:38	10:26 eta 22:39	☾

» ZAINTZAKO BOTIKAK

- URRIA**
- 28an, Barrenetxea. 943133183 Zarautz
  - 29tik 31ra, Lasa. 943832398 Zarautz
- AZAROA**
- 1etik 4ra, Lasa. Mutiozabal: Kale Nagusia, 12. 943832970 Zarautz
  - 5ean eta 6an, Azaldegi. Larrañaga: S. Frantzisko, 16. 943133814 Zarautz
  - 7an, Zulaika. Lasa: Herriko plaza. 943830936 Orio
  - 8an, Mutiozabal. G. Artiano: Zigordia kalea, 17. 943134019 Zarautz
  - 9an, Barrenetxea. Iriarte: Zinkunegi, Pilarboko Enea. 943132983 Zarautz
  - 10ean, Gallo. Zulaika: Bizkaia kalea, 41. 943133994 Zarautz
  - 11n, Azaldegi.
  - 12an eta 13an, Lasa.
  - 14an, Mutiozabal.
  - 15ean, Barrenetxea.
  - 16an, Gallo.
  - 17an, Azaldegi.

» TREN ORDUTEGIAK

**DONOSTIA-ZARAUTZ**

Donostia	5:47	6:17	6:47	7:17	7:47	8:17	8:47	9:17	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
<b>Aia-Orio</b>	<b>6:11</b>	<b>6:41</b>	<b>7:11</b>	<b>7:41</b>	<b>8:11</b>	<b>8:41</b>	<b>9:11</b>	<b>10:11</b>	<b>11:11</b>	<b>12:11</b>	<b>12:41</b>	<b>13:11</b>	<b>13:41</b>	<b>14:11</b>	<b>14:41</b>	<b>15:11</b>	<b>15:41</b>	<b>16:11</b>	<b>16:41</b>	<b>17:11</b>	<b>17:41</b>	<b>18:11</b>	<b>18:41</b>	<b>19:11</b>	<b>19:41</b>	<b>20:11</b>	<b>21:11</b>	<b>22:11</b>
Zarautz	6:19	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

**ZARAUTZ-DONOSTIA**

Zarautz	6:08	6:38	7:08	7:38	8:08	8:38	9:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:08	19:38	20:08	21:08	22:08
<b>Aia-Orio</b>	<b>6:15</b>	<b>6:45</b>	<b>7:15</b>	<b>7:45</b>	<b>8:15</b>	<b>8:45</b>	<b>9:15</b>	<b>10:15</b>	<b>11:15</b>	<b>12:15</b>	<b>12:45</b>	<b>13:15</b>	<b>13:45</b>	<b>14:15</b>	<b>14:45</b>	<b>15:15</b>	<b>15:45</b>	<b>16:15</b>	<b>16:45</b>	<b>17:15</b>	<b>17:45</b>	<b>18:15</b>	<b>18:45</b>	<b>19:15</b>	<b>19:45</b>	<b>20:15</b>	<b>21:15</b>	<b>22:15</b>
Donostia	6:39	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com. Grisez dauden orduetan trenak daude asteburuetan.



**PAPER-DENDA, LIBURUAK ETA OPARIAK**

INPRIMATU (IXURI-BELTZEAN ETA KOLORETAN)  
 ESKANEATU (IXURI-BELTZEAN ETA KOLORETAN)  
 FOTOKOPIAK (IXURI-BELTZEAN ETA KOLORETAN)  
 DS INPRIMAKETA  
 KOADERNAKETAK, FLASTIFIKAZIOAK  
 FAX ZERBITZUA  
 LIBURUAK ETA OPARIAK  
 USB GILTZAK

Tf.: 943 57 20 83  
 Fax: 943 57 11 10  
 Mug: 888 870 435  
 Losenjo@estmail.es

INES ASTENO  
 IBAI ONDO 9. BEHEA  
 20810 ORIO






## Herriokoak haziak banatzen

Herrio natur taldekoek azaroaren 12an hazi banaketa egingo dute. Besteak beste lizar, gaztain, arte, haritz, elorri zuri, gorosti eta astigar haziak banatuko dituzte plazan 10:30etik 13:30era bitartean. Bertaratzen direnek jasotako zuhaitz haziak etxean ereitea eta landaretxo direnean kanpoan landatzea da egitasmo honen helburua. Ekimen horrekin inguruotako basoen garrantzia azpimarratu nahi dute Herriokoek.

rregi-Errota oinez; eta Errota-Ikastola bizikletaz. 9:00etatik 13:00etara, Ikastolan hasita.

### Dantza

■ Astearteetan, aretoko dantzen ikastaroa, 18:00etatik 21:30era, Kosta tailerrean.

## Orio

### Jolasak

■ Urriaren 29an, Klik jolasa 3. mailatik aurrerakoentzat. Talde bakoitzeko argazki kamera digital bat. 16:30ean, herriko plazan.

### Informatika

■ Azaroaren 4an, doaneko antibirus programei buruzko ikastaroa, 11:00etatik 13:00etara, KZgunean.  
 ■ Azaroaren 9an, *Nola gorde informazioa* ikastaroa, 11:00etatik 13:00etara, KZgunean.  
 ■ Azaroaren 11n, *Mugipu, garrario publikoa Gipuzkoan* ikastaroa, 11:00etatik 13:00etara, KZgunean.  
 ■ Azaroaren 3an eta 8an IT txartela ateratzeko azterketa, 11:00etan, KZgunean.

### Futbola

■ Urriaren 28an, afizionatuen gorengo mailan, Eibartarrak-Orio, 20:15ean, Unben.  
 ■ Urriaren 29an, kadeteen ohorezko mailan, Lagun Onak-Orio, 11:15ean, Garmendipen (Azpeitia).  
 ■ Urriaren 29an, jubenilen lehen mailan, Orio-Zarautz, 16:30, Mendibeltz zelaian.  
 ■ Urriaren 29an, emakumezkoen senior mailan, Beasain-Orio, 10:00etan, Igartza zelaian.

### Saskibaloia

■ Urriaren 28an, Gipuzkoako 2. mailan, Alustiza autobusak Orio - Krafft Atlético Sn. Sn., 20:15, Karelán.  
 ■ Azaroaren 4an, Gipuzkoako 2. mailan, Alustiza autobusak Orio - Kostkas Internacional., 20:15, Karelán.  
 ■ Azaroaren 5ean, eskolarte-

ko benjaminen 3x3 txapelketa, goizean zehar, Karelán.

■ Azaroaren 5ean, Gipuzkoako infantil emakumeen parte hartze txapelketan, Orioko Ikastola ZAST-Santa Teresa, 16:00, Karelán.

### Estropadak

■ Azaroaren 11n, San Martinetako X. Ikurrina. Tainerilla mistoak -bi mutil edo bi neska nahitaez- eta gutxienez 5 oriotar. 17:00etan, Ortzai kan.

### Irteerak

■ Azaroaren 24an, erretiratuen Arantzazurako irteera. Txartelak: azaroaren 10ean. Prezioa: 35 euro. 16:00etatik 18:00etara Zaharren babeslekuan.  
 ■ Azaroaren 6an, mendi irteera Ikastolako gurasoek antolatuta: Ikastolatik Errotara bizikletaz; Errota-Iturraran-Ago-

## Aia

### Afaria

■ Urriaren 29an, afaria trikitilariekin: Ander Beldarrain eta Eider Iraola. Afaria 20 euro. 943 83 54 65. Errota jatetxean.

### Silo-Bolak

■ Azaroaren 8an, silo-bolen bilketa. Zerbitzuari buruzko informazioa: Urkome (943 81 65 00) edo Igor (660 04 97 51).

**Ordu aldaketa:** Urriaren 29tik 30erako goizaldean, ordulariak ordu bete -03:00etatik 02:00etara- atzeratu beharko dira.

### Atzeko azala:

Orioko kanposantua, 1995.

**Argazkia:** KARKARA

